

# DEIKA

***solozabal'tar paulin***

*SOLOZABAL'TAR PAULIN*

# **DEIKA**

**(Olerki bilduma)**

**BEAR DIRAN BAIYIENAKAZ**

**I. S. B. N.** 84 - 400 - 7822 - 6

**Depósito legal:** BI 1617 - 1974

---

## ITZAURREA

Eske dot Soiozabal olerkaria, zerbait gura dau, ostera be; itzaurre bat, berba goragarri batzuk, bere liburu idatzi barria aurkeztuteko. Gauzarik asko ardatzerik kanpo dagozaia gaur diñogun arren, au, pertsonak naiz liburuak mintzaldi gozoz goretsi ta inguruko zerbait adieraztea betikoa dala dirudi; antxiña orrela egin oi zan, gaur orreia dagigu ta aurrerantzean be olantxe egingo dala, nik uste. Giza-arrokeritxoa iurrundu ta geure azkurari guri txalokatzea, nori ez ete yako atsegin? Ez, bigarren izate lez yakun au ez yaku iñoiz be geugandik astintzea errez izango.

Nik, beraz, eskatuari dagokionez, itzaurrea egin bear dautsat poesi-liburu barri oni. Kalamu azpiko olerkari onek, izan be, ba-dau oparotasun sotilla, onegaz bostgarren aiea bait dau argitara emonetakoetatik. Ez da gitxi, ta onezkero poeta eldu zurrian datorkigula, esan bear. Batzuk olerkitxoren bat —ez jakin zeian burutua danik ondu dabenean, uste dabe betirako poeta sagaratuak ditugula; baiña, tira, tira!, gizonaren bizialdia ezta orren motza be ta, erakutsi egin bear dau egiazko olerkariak geiago ta geiago onduaz, euskera txiro onetan batez be, ba-dala zerbait, ba-dauala bere barrenean goi-argi nastea ta kanporik zentzun-treberasuna, antze-lan bikaiñak osotuteko. Orrela egin dausku Solozabal'ek, eta txaiogarrri danok ezingo dau iñok ezpaian jarri.

Eskatu yatana egitera jo aurretik, zeatz be zeatz irakurri ditut esku artean daukazuzan olerkiok; danak dituzu, azaietik beintzat, taiu bardin samarrean osotuak, bost aapaidiko ianak nunbait, aapaidi bakotxak sei edo lau bertso ditula. Onela; 7/7/6/7/7/6; 7/7/5/7/7/5; 7/5/7/7/3; 8/8/8/8, eta zortziko nagusi bar. Orriaide bakotxak

lan bat artzen dau. Oterkariak onetan be erea zaindu bear dautzu, itxura danez. Ederra geien bat irudimenari dago-kio; baiña adimenari laket yakona dan ezkeru, men bion indarrak, azaleratzean, erea, raiva euki bear dau; Agustín deunak diñoskunez, «spiendor ordinis», taivaren dirdaia. Egoki dator, beraz, azaiaren tankera aiagalako au be.

Eta mamiñari zelakoa deritxadan? Bakotxak dau bere sena, gauzak ikusi ta artzeko diñot. Landako ederra beintzat ikusiz atsegiña damoskuna da; barrutikoa, barriz, norberak ikusi ta sortua, geure giza-osin ixillean irabio neketsuz erea (forma) emon oi dautsagun zerbait. Arte edo erti deritxaguna, naiz olerkian, naiz musikan, naiz margoan izan, ez da langintza utsa; otzara edo saskigiileak zumez dagian otzara, adibidez, ez da ertia, antze edo artea; oterkariak, margolariak, eresilariak beste zerbait osotzen dabe. Poetak, esate baterako, barruko ta kanpoko zentzunak atezu osoan jarri oi ditu, ier-bear osoan, ariarian noski. Eta auxe dozu sorpena, beronek kautan dabezan poz-atsegin, irribarre ta oiñaze guztikaz.

—Ederra, orduan, bitarikoa dogu, ezta?

—Ederra ba'da, bai. Ta auxe da lenengotik gogoan artu bear doguna. Gairik ez ba'lego, ez legoke ezer. Zer ete da ederra? Mundu guztiak diñoanez, eta kondairako iker-lanak adierazo, begiz edo adímenez artu ta ikusiz atsegin yakuna da ederra. Buruz artu ta begiz ikusi... Buruak eta begiak, beraz, ba-dabe garrantzia ederraren biran. Gauzak, izan be, agirian dagoz ikusi al dauazana-rentzat, aurkitu ta oratzeko gai danarentzat. Norbaítí deiez dago ederra, ikusi ta artu al dañkenari deika nunbait. Norbait orrek —olerkariak, adibidez— ikusi dagi ta atzemon, bion artean berez berez olako alkar-tira ta joera biguna sortu-azorik. Egiak eta onak be artu-emon antzekoa dabe;

irurok, egia esan, ez dira bat, baiña obo bat dira iru zati eginda. Maitasuna be orpoz orpo dabitkie onei, baiña maitasuna erdi-miña ei da bakarrik eder-saillean.

Zer ondoren ete datorkigu emendik, jarioka lez? Gizonak emoten dautsala ederrari zentzuna. Ortaz, ba, bardin samarra da ederra naiz kanpoko gauzetan billatu naiz gizonak bere barrenean croan; biok alkarune batera joko dabe, guencan be. Berezkoa yaku guri gauza ederren izatea somatu ta arzcnotca, gauzok barruan dagiskuen ikutu gozo ta dei zoliaren bitartez. Ikusi ta anua dakarskun atsegiñagaitik\_ ez ete <sup>s</sup>abiltz ederraren billa? Konturatu al zara iñoiz? Beeira barrurantz, itxi ateko zentzun-leia-tillak, baretu barrukoak, era oar. Zer diñozu? Geure zer osoaz ar-emonean jarri da ederra; ezagun-almenak edertasunari oratu dautsa, ra gure gurari edo irrirts-ixurkian atsegiña nabari dogu, ra ez gitxi. Au, gaiñera, ez da eza-gun dogun zelai argituan bakarrik jazoten, baita ez-eza-guna yakun geure harrcneko osin czkutuan be. Ederra noiz edo bein geu konturatu bage, tximist-índarraren kolpe ezusteko baten antzera, etorri oi yaku. Egía esateko, izadian daukaguzan indar xiiiten gisako zerbait ba-dogu geure senti-bagcko lera baltz illun Freud'ek azaldu nai izan euskun onetan.

Oratze, atzemote sentikor bat gertatu oi da onakoetan; begiz-begiko ikuspena izaten da, naiz kanpoko naiz barruko zentzunetan oartu oi dana. Begi-zizta onetan gauza beta bere izate soillcan ::rtu la ikusi dagigu; lenengo azalez bakarrik ikusten dozu, urriñago ikusteko atepak apur bat zabaldu-azorik: gauzearen soiItasuna dakuszu lenengo, ra gero zoaz zer orrek barruan ditun zeaztasunak be ikusi ta aztertzeraz ; barruko zentzunak, gure ezagunenak batez be, barrenago jo ta izakiaren muiña bera, argontzi

dirdaitu batez lez, ikuskatzeraiñoko indarrez jantzia daukazu. Orrela jakin zeinke, bai, izakirik ederrenak nun dagozan eta zeintzuk diran.

Eta onek, barriro diñot, egiazko ikustea ta oratzea danean, atsegin azkarra sortu oi dau. Or filosofuak eta mistikuak iekuko. Atsegiña bera be, ortaz, ederraren saiatari dozu, atz-emoteari berez darraikiona. Atsegiña ez da aurrelari, baiña bai naitaezko atzeiari: gaztetasunari be berez dagokio ederra. Ezaugera ta atsegiña batera doaz, baiña alan eta guzti be ezaugerak daroaz eskutik atsegiñaren zuzen-ugelak.

Zer da, baiña, guk zentzunez artzen doguna? Ingurumari daukaguna : arraiña uretan lez, gu ederrez esiturik gagoz, indar ezkutu batek iez zapi zuriz estaitzen gaitu. Biziaz ta ikusiaz dakit nik, ain zuzen be, eder-iurrunetan igitzen nazaia. Barruak diñost: «Ederrak arabil l» Bai, ederrak arnas dagist inguruan, ez gero iurrak, itxasoak eta urrin samar daukadan zeru izartuak bakarrik, baita neure barne-guneko morai-iegeak be. Ederraren aztarrena deika daukat, milla eraz gaiñera, izadian, gizonetan, aldian, egikeretan, artu-emonetan, azal eta barru, milla, miila bide ta edutan bai dizdizka ta garraziz daukagu ederraren irudia. Gauzak, alan be, ez dira eder atsegin yakuzalako, ederrak diralako doguz maite.

Eta, zetan jokatu oi ete dau ertiariak ederra azaltzerakoan? Al daki gero egilleak berak? Guztiz zaii yaku benetako idazle artista baten barruan, erti-lan bat sortzerakoan, zenbat gertakari, fenomenu gurutzatzen diran jakitea. Nekez izan daikegu sorpen orren albista, egilleak berak bakarrik bai dauka ixii orren giltza; barrukoa dau, esan-eziña, beti be itzal ganduz estalia. Ez ete dogu esan oi jainko bat —Maitagarria— dabiliela or? Sortukeran zer jazo dan, bai, apur bat beintzat, adierazoko ieuskigu,

besterik ez; ez irudimenak, ez lojikak ez dausku or gertatu dana zeáro argituko. Itandu poeta bati zelan biribildu dauan oierki lan ain bikaiña; ez dautzu agertuko, ezin dau-ta. Oierkaria, momen; u ortan beiñik bein, bere mundu berezian ari da ianean, eta gure oizko mundura aldatzean, ez daki ango barririk emoten. Bere ianari ekion bitartean etzan inguruko ezertaz konturatu. Alan be, or dozu egiiieak gogaiz ta biotz-zauskadaz gaiñezka itxi dautzun ian ederra.

Erabat onakoxe sorpenak dozuz Paulin'en bertso-lanak be, ixillean, berak zeian ez dakiala bizitza emon eta apainki jantziak. Izan dauz, ezpairik bage, olerki baxotxa sortzean bere erdi-aldi minkorrek, beste munduan izanak. Orañ mundu onetan dala, ozta-oztan daki zelan osotu zituen ian barriok; or datozela bizi-bizirik, ez daki besterik; eder-ianak dituzu berak argira ekarriak, bere pentsamentu ta sentierak, bere oiñaze ta neketan sortutakoak.

Nundik artu dau ederra? Nun oratu ete dautsa? Toki askotan, ots, bere barruan eta izadian. Goizero, soiñez ezpada irudimenez, Mungi aideko kale ta zelai, mendi ta zugatz, erreka —Oka— ta txoriak, begiz je/ ditu, ederra atzemonik, eta barruko almenakin ore ñabarra osotu dausku, bere ikuste, oretze ta abarrok olerki borobilletan guri eskeñiaz.

Nik —girotan egon nunbait— idazti au osotzen daben poesiak irakurtzerakoan sarri sentidu dot neure baitan esan ezin aiñako zirrara gozoa. Oierki-sail aundia da, ta noizik bein gauza bardin antzekoak jartzea, berezkoa deritxot nik. Gizonaren oldozkunak ez dira iñundik be izadiko txirpí edo muntegi antzeko, urriagoak baiño; eta, jakiña, asko idaztera ezkerro, ez da zail lena barriro esaten jardutea, errotako txalapatak lez. Edo-ta, birigarroak be ez etc dau beti bardintsu samar abesten? Nire komentu ba-



rrenetik doan errekaizto ertzeko zugatzetan goizero kantuz diarduanak beintzat, eres-mail naikoa zabala daukalarik be, sarri entzun ezkeror; doiñu bardin samarrekoa íruditzen yat. OIerki-liburu onek be, olako zerbait ba-dakarsku belarrira.

Osterantzean euskerea jator darabil; azal ñabarra, amai ta neurri naikoa ondo landuak, bertsoiari zaarren doiñutik zerbait aidenduar Eta olantxe, zernai abestu naf ieuke, lenngotik azkeneraiño. «Egia naz deika» deritxonean azalzen dausku garbiro zer abestu nai dauan

Landara, pizti, gizon,  
zuen azkatasuna  
aipatu nai neuke.  
Guzurrezko etsaia,  
ez nagizu zapaldu  
egia esateke.

Irudimen zoiia dau geienetan, ondoren ederrak be iñoiz edo beste jatgi ta erein-azoz:

Eguzkia gura dot  
bere indar guztiagaz  
gure zaidientzat;  
bedarrak il egingo  
dira argi ori bage  
gure erriarentzat.

Baserri-zale agertzen da, ta lugiña goratzen dau:

Goizero noa pozez  
basetxeko lurrera  
gogoa azkatzera;  
gorputza arin doakit,  
astuntasuna itxita,  
egazti antzera.

Izadian lez, gizartean be lorak eta arantzak eme oi dira:

Ezkutuzko indarrak,..  
lur beraren sabelak  
sortu dauz etsaiak;  
arantzak eta lorak  
alkarren ondoan  
gorroto diranak.

Onak deritxoz aurrerakuntzak, baiña gizonarentzat etekintsu diranean:

Aurrcrapidea ez da  
bakarrik bizitz zoria,  
aurrerapideak ona  
egin bear dau ugaria.

Azkatasuna kantatzcn dau. Gizonaren osasuna dala diño, zuzen-bidetik jo ezker. Gizonak, alan be, azkatasuna dala-ta, berekeriak egin oi ditu

«Azkatu, diño, azkatu»,  
eta itzez, baita egitez,  
besteak zapaltzen ditu  
berekeriak egiñez.

Auxe dozu Paulin'en poesia. Auxe dozu liburu au. On egin !

Larrea, 1974-2-22'an  
*A ita Onaindia*

## EGIA NAZ DEIKA

Azkatasun leia, gar  
gar, dabii gizonetan.  
Su-bero dario.  
Izatezko garra da  
biziaren miñean  
barru-barruraino.

Nundik datorkit gar au  
ain iiezkor ta gogor  
barne irakiñetan?  
Gizon indarrak baiño  
ikaragarriago  
dabii gizonetan.

Onek narabii miñez  
azken aldi ornan  
akuiuz zirika.  
Burdinezko ez zara,  
ez ikatzarrizkoa,  
egi zara deika.

Garrazi saindu ortan  
egiaren indarrez,  
iñoiz, ez ixildu.  
Gizadia negarrez  
bizi ai dan bitartean  
arriz abaiidu.

Landara, pizti, gizon,  
zuen azkatasuna  
aipatu nai neuke.  
Guzurrezko etsaia,  
ez nagizu zapaldu  
egía esateke.

## AMA-LUR

Lenengoz artu nindun  
ama-lurren sabela,  
bai maite gozoa!  
Eztia izan jatan  
jaio nintzan orduan  
amaren gogoa.

Lurra sentikorra da,  
baiña nik neureari  
xurgatzen uriña.  
Zure da nire gorputz  
basaz ta odolez  
euskaidun muiña.

Ama-lur gogotsua,  
zure errai indartsuetan  
nintzan janaritsu.  
Bizia eriozun  
andraren gisara,  
ta bular maitetsu.

Zure errai maitetsuak  
maitasun eriotan  
ninduen zainduten,  
biziz eta arnasaz,  
ama berberanagaz,  
osoz osotuten.

Geroz, ama ikusten dot  
bakan, bakar, jorí,  
—ezerk ez izan lei  
zurelako bizirik—  
zure maite guztia  
damotsezu semeei.

## BARRUA

Ama-lurren barrua  
gizonek ez dau ikusten  
berau dan bestean.  
Amak azke izan bear,  
ta azkatasun bizia  
ez da ager iurrean.

Ama-lurren biotza  
su beraren gisara  
ondo bagea da;  
gorri-gorri odolez,  
su-garra maitasunez,  
biziz ezilkorra.

Ama-lurrak iakorik  
daben maite garbirik  
ez dauka izadiak.  
Ez dauka iñun ondorik,  
eder bera bakarrík  
jantzi dau ortziak.

Ama begira soilki,  
eta argia dario  
berez izatetik;  
Amaren su ta argia  
bere bizia dira  
semeei eskeiñirik.

Ama oparia da,  
barruko bere naia  
maiteki eskeintzen;  
amaren indar oro  
egunero urtu da  
semeak azkatzen.

## BIRIBIL AIDEAN

Lurrak azke izan nai dau;  
biraka bakarrikan  
biribil aidean.

Berez, azkatasunez,  
sortzezko legeari  
darraikio itean.

Iñork ez dau eskurik  
izadia apurtzeko  
arriz, ezta burdiñaz.  
Gizonak ez dira iñor  
erriak kiskaltzeko  
tximist indarragaz.

Jainko indarrez bizi da  
lurra bere senean,  
gureztat dagona.  
Onak ona sortzen dau  
janari sor-miñez; ta  
errege, gizona.

Ez kutuzko erraiak  
ezin ditu gizonak  
barrundau bat-batez.  
Geldi arakatuten  
lurraren illunpeak  
jakituri bidez.

Billa ta billa doa  
gizona lur barrura  
ondasun ondoren;  
maitasunen garretan  
biotza ba'litz legez,  
ama-lurra azkatzen.

## GORROTORIK

Gorrotorik ez dauka  
gaiztakeri maltzurrez  
ama-lur maiteak.  
Pizti baltzik ez dago  
orroaka barruan  
il naiez semeak.

Errai zabalak ditu  
amarenak bezela  
urrikalkiz lertzen.  
Semeei begira dago  
amaren gogoetan  
bizia eskeintzen.

Lurrak ez dauka edenik  
biotzaren barruan,  
ez odol gaiztorik.  
Amak ezin eskeiñi  
semeen maitasunari  
gorrotoz ugatzik.

Lur onak ez dau ilgo  
semeen bizia,  
etsaia ez da-ta.  
Oi iur, gure lur ama!,  
erriaren indarra,  
ni be zuk sortuta.

Lurrak ez ninduan nai  
etsaigoan ikusi,  
amakin semea.  
Ama-lurra ez da anker,  
semeen biotzetara  
dario maitea.

## LURRA

Lurra ez da biraua,  
ezta kirtenkeria,  
ez dago gaizkira;  
lurrak indarra dauka  
onagaz omituta,  
gorantza begira.

Jaunak ez dau gaiztetsi,  
gizonentzako maitez  
sortu eban kabi.  
Mingostasunik ez dau,  
barruan eztan miñik,  
oso dozu garbi.

Lurraren izateak  
bizi-miñaren garra  
beragan daroa;  
lurra otza dan arren,  
errai biguna dau,  
orrazi gozoa.

Lurrak ankerkeririk  
ez dau biotz barruan,  
ez zitalkeririk.  
Iñor ez dau zapaidu,  
ez gogorik iguindu,  
ez, ez dau nai iiterik.

Lurrak ez dauka illunik  
bere biztanle sator  
topelariantzat.  
Lurrak ez dauka arantzik  
gaiztetsiriko suge  
narrastiarentzat.



## EZ DA KEZKATI

Lurra ez da kezkatu,  
giza jakiturizko  
irain maltzurretan.  
Ltilik artzen ditu  
gorrotozko egurrak  
negar besoetan.

Trumoiak sarri izan dau  
etsai amorratua  
dardaraz beterik,  
baiña amaren erraiak  
artedun eta bare  
asarre gaberik.

Burdiña eraikorrak  
zauritu dabe, minkor,  
amaren biotza,  
ta lurra ixilik, sendo,  
negar egin ezinda,  
zaurizko biziak.

Lurra erretan egon  
gau baitzean garretan  
giza gaiztakeriz.  
Lotsatuta egoan,  
lertzen bere barruan  
seme okerkeriz.

Min eukan biotzbarru,  
negarra begietan  
naigabe artean.  
Zeure bakar orretan  
zertzuk asmetan dozuz,  
arantza bidean?

## EZIN

Lotsarik gorriena  
odoiez gorrituta  
neu ikustea da.  
Neure gorputzkideak  
barrendik maite ditut,  
semeak dira-ta.

Gogo gaiztook jo dauz  
gorrotozko indarkeriz  
neure begietan.  
Ezin neban ikusi  
oiako gorrotorik  
seme-atabetan.

Baiña zital alena!,  
geldi egon eziñik  
itsutu zanean,  
gaiztakeri guztia  
batean alkartu zan  
bururik ezean.

Nire magal guztia  
gorri-gorri egin zan  
odoi beroagaz,  
iñun ez dot egalik  
odola gabekorik  
eriotzeagaz.

Seme-alabak iida  
neure barrenean ditut  
ezin esan beste.  
Nigandik unen eben,  
neuk janaritu nitun,  
neugana datozte.

## AMA

Ama-lur maitalari  
sortu nindun Jaun Jabek  
seme-alabentzat.  
Nire izatea, berez,  
doakit zuengana  
bizi janaritzat.

Arduraz nabit goizez,  
iñor ii ez dakidan  
semien artean.  
Neure bizia dabe  
aize garbi-garbiaz  
bizi barrenean.

Gizadia maite dot;  
gaisoak bereziki  
urrikaltzen nabe.  
Semien ezbearrak  
lortu dauste biotza,  
ausaz oarkabe.

Odola jat edari  
semeak ikusirik  
gogorkerietan.  
Negarrak ito nai nau,  
semeak gorpu ii-otzik  
jausten diranetan.

Arantza gogorrena  
sartu jatan barnera,  
ieza zulo zurbilta.  
Neugana biurturik  
seme-alaba nekusan  
ama-lurren billa.

## ERRUKIA

Errukia dario,  
amaren errukia  
seme guztientzat.  
Nire izate gardena  
maitasuna bera da  
ume minduentzat.

Suzko itxaso dirudí  
barru ontan, garrean,  
dodan ur biziak.  
Ezin itzalia da;  
ke-ondorik ez dauka  
maitasun goriak.

Erraiak zabaldurik,  
barriro artzen ditut  
biotzeko ígaiiak;  
gorputzak datorkidaz  
amaren bake billa  
otz eta itzaliak.

Ni lurra naz bakarrik  
eta lurra emon dautset,  
oparo, soil-soillik;  
bizia emon eutsen  
EGILLE, berez danak,  
notin osoturik.

Mirabe sortua naz  
eta ez giza-Jainko.  
Mirabe izango naz  
ama-lurrez batera  
gizadiko negarrak,  
maitez, poztuagaz.

## LURRA NAZ

Lurra naz, baita ama be.  
Neure Egillea ba-dot,  
aundiena bakar.  
Sortzetik ona nabii  
Sorleari entzuten  
zein dan eginbear.

Erraietako deia,  
berez, artu nebana,  
otska dot barnean;  
azkatasuna nai dot  
seme guztientzako  
era bardiñean.

Mire biotza sarri  
erdi-miñetan iertzen  
ikusi dot gabaz;  
gizadia illunetan  
nekusan gorrotoan  
ezpai minduekaz.

Onenak zapalduta,  
miñez, ikusi nituan  
zoritxar azpian.  
Nungo ausardikeriz  
egin ete eikiezan  
nenbilien gaidean.

Azkatasunera  
amaren lei biziaz,  
gizadi danera.  
Zoritxarrik ca neban  
deadarka ari nintzan,  
ikusi nai semietan.

## MAITE ZIRANAK

Azkatasunezko otsik  
ez eusten onartuten  
iñundik iñora,  
ta seme galbideak  
zoratu bear nindun  
ilteko giñora.

Neure maite ziranak  
usteldu egin ziran  
begien auzoan.  
Lotsarik ez gizon lez,  
begiz ikusi nai ez  
odol gorrotoan.

Lur ondasun argalen  
ondamuz erre ziran  
askoren biotzak.  
Kateiz lotu jakezan,  
on-zirkiñik gabe illak,  
esku, oin, gorputzak.

Amaren gurariak  
maitasuna nai eban  
lurraren gaiñean.  
Erraiak zabaidurik  
esan neutsen egia  
maitasun bidean.

Gero, beti, begira  
nenbillan mendi zear  
gizadi zarrean.  
Arduraz mindu nintzan,  
bakea izan zeiten  
gizonen bidean.

## NATORKIZU

Azkatasun itza, bai,  
zugana natorkízu  
maitezko kantari.  
Izadi zar-barria,  
azke izan nairik dabii  
irrintz oiuiari.

Nire babesa ez da  
odoi-zaie iltzaillea,  
ez eta lapur be.  
Semeak, azke, azke,  
maitatu gura neukez  
ezeren biidurgc.

Beti salatuko dot  
gogorkeri malmutza  
edozein tokitan.  
Edozein gizon, gogor,  
gaiztetsiko dot bere  
arrokeri ortan.

Ez dot nai urrezko dan  
zapaitzaiiie bigurrik;  
gorroto jat ori.  
Ez dot jakiturizko  
kateatzaiierik nai,  
azke nai dot bizi.

Gogo zabala egaz  
doakit mendi goira  
azkatasun biila;  
egaz nabii aidean  
gogoaren gisara,  
egizko gurpilla.

## EGIAK

Egiak egin nindun  
lurra deituz sorkeran,  
egi biribilia;  
egiari begira  
bizi naz neure baitan,  
argitu nadilla.

Nire ustea, sortzez,  
Egiaren egi da  
barea ta lurra.  
Maite nindunak sortu  
nindun lur izakia,  
ona ta makurra.

Uts-utsa ez. Zerbait naz.  
Giarrezko izatea  
dot neure barruan.  
Maitasunak sortuta,  
maitasunez bizi naz  
neure etxe sortuan.

Egiak sortu nindun,  
egia emon eustan  
azkatasunean.  
Egiagaz bizi naz,  
egiz janariturik  
gizonak lurean.

Bizi auxe damotset  
neure semien semeei,  
giza-bizi-sari;  
egizko nortasuna,  
berez, dagokiona  
gizon biziari.



## GEROZ

Bakearen indarra  
emon eustan Sorleak,  
bakez izateko.

Geroz, ixilik nago,  
esana beteturik  
egiz ibilteko.

Bakea ta egia  
alkartu dira nigan  
maitasun betean;  
nire sort-iturria  
Egia berbera da  
beretasunean.

Ni maitatu ninduan  
maitasuna, zabala zan,  
zabaitasun bera;  
bakez jarri ninduan  
aidean egazkari,  
euzkí egazbera.

Bakea urratzerik  
ezin nai izan nengike,  
lapurra izan barik;  
izaditar guztiak  
gozartu bear dabe  
bakearenetik.

Nire lur-izatea  
bizia ta gatza da,  
on-maitearen muiña;  
berez dot nik bakea,  
bake-zaleentzako naz  
on-maitagarria.

## MAITALARI

Maitaiaria nintzan,  
maitalari naz beti,  
neure izakeraz.  
Dodana emoten dot,  
lurraren ontasuna  
neurri zabal-eraz.

Bizitzako ezitia,  
biziaren bizia  
dario nigandik;  
eskerrez emon eustan  
Jabe'k askorentzako  
negurri gaberik.

Maite iora onena  
sortu jat gaur, goizetik,  
zuri bizitzea  
emon dautzudanean,  
jakituriz orniduta  
zeure nor-asea.

Zure odol gorria  
neure maitasuna da  
txinpartaz josita;  
biotz biok dabiltzaz  
aikarren ínguruan  
maite jarioka.

Lurraren biotz ona  
ez da itsua, ez otza,  
iliaren pareko;  
maitasuna dario  
lurretik iagunera  
crrukiz gorrizko.

## EZ DOT NAI

Ez! Ez dot nai goserik.  
Ez umeak iltea  
arduragaberik.  
Ama-lur naz izatez,  
sentimendu bigunez,  
errukiz beterik.

Semeak etsaigoan  
sarri ikusi nituan,  
anaiak anaia ilten;  
ez euken maitasunik,  
ez buruan argirik  
aikar apurtuten.

Seme gaiztoa, entzun,  
irrits okerrak kendu;  
seme asko ditut,  
neureak dira oro,  
ez nagizu samindu,  
aiaka dirautzut.

Amaren dei samiña  
semeak entzun dabe,  
entzun-gor egiñik;  
amak gero, negarrez,  
darraike mendietan  
illunez jantzirik.

Lurraren zoritxarra!,  
zelaiak zear dabil  
samiñak urratuta;  
izadiko lorak ez  
dira lora zuriak  
gorrotoz ioituta.

## ZAURIAK

Zauririk aundiena  
noiz artu dodan, garbi,  
esaten gaitz da.

Larregi izaten dira  
bizi-giro traketsak  
txarrak goibeiduta.

Gorrotoa izan jatan  
guztietan baltzena,  
arpegi murrira.

Amorruzko biotzak,  
ondamuzko gizonak  
alkar ilten dira.

Biotz zitalkeriak  
eden-gaitz dario,  
anaiak ilkeran.

Lurrezko semeak il  
ta ama lurra ilten da  
semeen eriotzan.

Zenbat burdin jausi dan  
nire saietsetara  
lñork be ez jakin;  
aundiena lenengoz,  
Iroshima'n izan zan  
gaizkilleen ondakin.

Gizon amorratuak  
etsaiak iataz noski,  
buru-gor dira-ta;  
erre egin nai ninduen  
Iroshima'n, Gernika'ra,  
suaz kiskalita.

## BIRAURIK

Biraurik ezin, ezin ..  
dot bota semeen aurka,  
il ez dagidazan.

Neure artean daukat  
ilten naukan samiña  
amaren barruan.

Dei eta dei nabilke  
maite ditudan semeai,  
egia ager nairik.

Bizia da egia,  
guztientzat bardiña  
ondamu gabarik.

Neure samin artean  
ez neukan nork pozturik;  
ain ekaitz malura!  
Gorrotoko ats txarra,  
eriotza sundea  
sartuten barrura.

Odolak gorri-gorri,  
garrazi egiostan  
izate osoan,  
eta nik ezin poztu  
seme biotz minduak  
naigabe itxasoan.

Jaungoiko Egillea,  
zugana natorkizu  
galzori unean;  
okerrentzat argia,  
onentzat maitasuna,  
arren, bai, lurrean.

## GIZONAK

Gizonak ez dakie  
nire samiñen barri,  
amak artu ditun  
seme irain ta eriotz  
amarentzako ziran,  
bakarrik, gau ta iilun.

Ortzak iuzatzen doguz,  
arrokeri maltzurrez,  
leoiak oraindik;  
barriro artu bear  
al ditut il zunpadak  
errurik gaberik?

Nik ez dot gorrotorik  
amaren errai ontan,  
giarra utsa naz;  
arnas beroa daukat,  
biziro, barruetan  
odol garbiagaz.

Zauririk aundienai  
borborka urten eutsen  
maitasunik geien.  
Barru-min erioak  
egitan ez daust itzi,  
iñoiz, ustegetzen.

Miñari maite-eztia,  
zauriei erioa,  
ta gorrotoari  
maitasunaren sua  
ixuriko dautsedaz.,,  
baita erriari.

## IXIL-IXILIK

Ixil ixilik nago;  
esanda ezer ezin,  
ta asko minduten naz.  
Amaren nortasuna  
kendu egin nai dauste  
txarkeri balzagaz.

Iñoiz ez dot onartu,  
ama izan nintzanetik  
*egia* apurtzea.  
Amarentzat egia  
bere semeak cIfra,  
ta eskubidea.

Semeen eskubidea  
neure barruan dago  
sustrai eta garin.  
Ementxe artu eben  
bizia bizirako  
jaio baizen arin.

Neuk emon neutsen, lenen,  
amasa bízirako  
azur eta manún;  
Jainkoak emon eustan  
eskubide santuaz  
arei lagun egin.

Semien goraéberak  
katei artean nauke  
maitasun miñean;  
illuntasun garratz au  
oiñestari bategaz  
ausiko dot goizean.

## NEGUAN

Neguan ixil nago,  
neu neuregan gordeta  
barru barrenean.  
Ez dot ezer entzun nai  
txarkeri agotik  
amatasunean.

Bakarrik nago ilten  
neure bakardadean  
neguko otzean;  
ardirik ez da agiri  
ez erlerik aidean  
bizien artean.

Neu nago, bakar bakar,  
neure izate zarrean  
guztia estaiduta,  
bizitza gertzen nago  
iurpeko erraietan  
sor-miñak artuta.

Lengoak asko ii ziran,  
neure barruan dagoz,  
amaélur nabe ni;  
geure ixillak doguz,  
mintza ta mintza ala  
biotz biotzeti.

Betiko maitasunez  
biziari begira  
itxaroten dogu;  
argia, sua, garra,  
goraka agiri dira  
barrero, indartsu.



## BAKEZ

Neguan bakez nago;  
neure zeregiñetan  
bizi naz ixittsu.  
Basa-aker burrukarik  
ez dot asmau gabean  
garraziz itzaltsu.

Laiñoz estali nindun  
neguan gau otzak  
erruki gaberik.  
Bakar, neguan batuta,  
dar-dar neukan gorputza  
odolak igesik.

Bitdurrez nengoan zai  
lorik egin ezinda  
baltzaren baltzetan.  
Etsaigorik ez neukan,  
baiña itzal jatan gaua  
leoien erpetan.

Piztiak ixil ziran  
arrizko kabi-zulo,  
ni ixillago arean.  
Giza-pentsabideak  
ausnartzen asi nintzan  
gogo barrenean.

Ez neban nai otsorik,  
ez lauko ez bikorik,  
ezta adarrezkorik;  
bakea gura neban,  
soil-soillik, Iurrarentzat  
eztenik gaberik.

## BIDEAK

Bideak agertzen dau  
biziaren garratza  
gogorkerietan.

Ona baiño ez dot nai  
barru gogabidetan  
barreneko sutan.

Ainbeste gora-bera  
biziaren barnetik  
deika asmau nitun;  
ez eustan ezerk itzi  
zírrikatu gaberik  
ta ni aren zordun.

Ona maite ízan neban,  
ona emoten neutsen  
neuretar guztiai,  
bizia ta bertatik  
emon neutsen ogia  
lurreko semeai.

Gaur, opari bizi naz,  
neure semien alde  
errukia nai dot;  
amaren maitasuna  
urrikaltsu dalarik,  
indartsu deritxot.

Bizia oso-osorik,  
opaldu gizionei  
bizi al daitezen;  
biotz barrutik dator  
bizitza erioa  
gogoa zabaltzen.

## LAIÑO

Laiño baltzak gaurkoz,  
gogor, inguratu nau  
erruki gaberik;  
ni il nairik ete dabil  
zeiai ta mendi zear  
gorrotoz beterik?

Neure etxean nago  
eskubide osoaz  
ama-lur zarrean.  
Nire egoitza neuregan  
ausnartu dot sarritan,  
jaubetza onean.

Izate osoan dot  
biziaren zirrara  
gaiñezka erioz..  
Ibai ondoan daukat  
oiñarrituta oiña  
uraren pozgiroz.

Lurrak gizenak ditut,  
laiño battzak ez nabe  
iiiunez itoko;  
biotzak ez daust dar-dar  
egingo ojai baitzagaz  
ba'letor ni ilteko.

Bakea dot nagusi  
azkatasunagaz bat  
arkaitzen artean.  
Mendiz mendi azke naz,  
solo ta zeiai zear  
izate zarrean.

## BARRURA

Barrura milla bider  
begiratuko dot zer  
maiteen ete dodan  
aldi zao'iztu onetan.  
Burruka asko ikusten dot  
aldien gurpilian.

Argi billa dabiltzaz  
seme zuzenak iurrez,  
itxasoz,iei biziz;  
bizi ona nai dabe  
dagokfen eratan  
zuzentasun argiz.

Nire barruko leia  
beti sen baten dago,  
egia bezela.  
Ama-lur deadarra  
da nire ots bakana,  
dardarka sabeia.

Garrazi minberatan  
zarataz zabiitzenok,  
entzuidazue orti,  
zuen anai zarrak  
zintzo maite ninduen  
arduratsu beti.

Iñoiz aidendu barik  
begira egon nintzan  
euren deiai tinki.  
Norberekeririk ez,  
leial izan jatazan  
gogo onez gizonki.

## DEADARRA

Ama-lur deadarra  
sentikorkeri utsa  
ez da ez, iñoia.  
Amaren bizitza ain uts  
dala uste izatea  
ama saitzea da.

Amak ez dau semerik  
bertan bera izterik nai  
galdumcndietan.  
Odoiezko bizia  
bere izatea dana  
gogoz emon eutsan.

Geroz bizi dardara,  
indartsu, deika dago  
amatik semera.  
Ona, onena nai dau,  
beti semearentzat  
berezko Iegera.

Eskubideak dltu  
etenik gabekoak  
bere Iur giroan.  
Miilak uncen buruan  
irakastea izan da  
semeen ikasgoan.

Amak il naiago dau  
jatorrizko bizia  
galdu izan baiño ien.  
Egiz dardara dagi  
semeen belarrietara  
zetzuna eskatzen.

## L U R

Lur-amak ba-diardu  
bere kezak agertzen  
negarrez bederik.  
Nire iengo bizitza  
oraingoz bat egiñik  
ukan bear dot nik.

Jatorrizko bizia  
urteen buruz egiña  
niri dagokidat,  
era guztietako  
umeak izan ditut  
argiak neuretzat.

Sarri entzuten ditut  
itz aundizkiak uts, uts,  
azala ederkeriz.  
Ze asmo ete dabe  
aundikeri orretan  
lorrin nastakeriz?

Jakituri argia  
ta zentzun berezia  
ez dira ariñcnak,  
ezta gorrotozkoak,  
aizeak eruango  
aidez itz utsenak.

Azpikeri petralak  
asmau ditut, gogorrez,  
onartu eziñak.  
Seme on langilleak  
baztertu nai eustezan  
zintzoen zirenak.

## UME ZIRTZIL

Ama-iurra ez da gaur  
jaio dan ume zirtzii  
landara erkiña;  
bizia zarra daukat,  
odola txit beroa,  
asabak zar eiña.

Semerik argienak  
aipatu al ba'nitu,  
zenbat izar eder  
nire zeru goietan  
diz-diz ete dabiltzaz,  
Jaun Jaberi esker.

Abando'ko oiñastarri,  
nire aran guztiak  
arakatu dozuz,  
aran orreitan gero,  
lora barri-barriak  
seme on biurtuz.

Ortzeko izarra ziñan  
zeru goitik jatxita  
lur onen gaiñera.  
Zure su-gar gorriak  
dardaraz biztu eben  
lurraren emera.

Argia, berezia,  
lurrak hear ebana,  
dizdiratu zendun.  
Egun sentiko izpiak  
lurra emarazi eben,  
bizi ta ioradun.

## LENGO AK

Lengoak maite nitun,  
zugatz sendoak ziran,  
etxeko oiñ rriak;  
bizia emon eusten  
argiz eta biotzez  
izar ez txikiak.

Ez; azpikeririk ez;  
koidarkeririk bere ez.  
Gizontsuak ziran.  
Ziñezko izan gabe,  
zintzotasun maitale  
ta egi irakasle.

Amaren izen ona  
argitu eben gogoz  
izarren antzera;  
jakituriz zabaldu  
eben nire izena  
ertzetik ertzera.

Egiaren aldezko  
ibiii ziran zintzo  
mendi ta urietan;  
maitzurkeri gabeak  
argia bezeiaxe  
saiatuten ziran.

Argia zan gidari,  
egia zan janari,  
iurra bizigarri.  
Nire lengo semeak  
oiñastarria iduri  
Euskal-errira adi.



## BIZI NAI

Bizi nai, ta ezpaitan  
ekaitzak sarri sartu  
ninduen bizitzan.

Izate galzorian,  
etxeari biraka  
estu idoro nintzan.

Ekaitzak txingorrez jo  
zituan nire egalak,  
zulatu bearrez;  
erruki gabe etozan  
arriak goitik bera  
ni zauritu naiez.

Biotza zulatu naí  
eusten gogorkeriaz  
arrizko etsaiak.  
Odeietan ebiltzan  
agiñak zorroztuten  
danbarrada otsak.

Odeiak garrazika,  
sua botaten eusten  
ni kiskaldu nairik.  
Oro zan aundia  
inpernu zar gorria,  
ta ni erre barik.

Su-garra ikusi neban  
odeitik etorreta  
neuri erauzita.  
Ez ninduan odoldu  
eleizako dorreak  
kementsu eutsita.

## TA JARRAIAN

Ta jarraian ebiltzan  
itzalkeri itzaletan  
Auts biur nai ninduen  
eskubiderik gabe,  
maltzurki, etoiak.

Gau itzalez aize anker,  
indarra, soiñua, zer  
etorren gurera...!  
Zugatzak ausi bear,  
oianak orroaka,  
garrazizko ikera.

Baiña gabeko aize  
egoge eden putzezkoa,  
mendiak eruan  
nai eustazan gogorrez  
bere leoi tegira  
illuntze orduan.

Aize zakar guzurti,  
nire lurra minkaizten  
asi az gaiztoki.  
Zergaitik birrindu nai  
dituk nire ibarrak,  
aizez idaroki?

Leza baltza, nun daukak  
asmo gaiztoen garra  
nire lurra ilteko?  
Deabrua al jabik, or,  
aizeak astinduten  
ondamendirako?

## IRUDIKI

Irudiki! Irudiki !  
Odei tontor zuriak  
gorrotoz baltzean  
ur-ola biurtzen  
ziran tximist jaurtika  
arru barrenean.

Indar orrek etziran  
onenak gaiztakeriz  
maltzurkerietan.  
Oarkabean sartzen  
ziran izarretatik  
gaba zurbiiletan.

Asmo ilkorrak zituen  
ama-lurra ito nairik  
uriola zaldi;  
goitik bera zabaldu  
ziran itsumustuan  
borborio andi.

Ura zan ordu baltza!,  
gaizkilleak bezela,  
lapurrak iduri;  
mendietako solo  
ta ibarreko landutik  
ostu Iurra niri.

Iduri da osorik...  
Giza uriolak bere  
urezko antzera  
lurrak ostu zituen,  
Eskubideak ausi  
indarren gisara.

## EDURRAK

Edurrak, zuri-zuri,  
goiz estaldu ninduan  
otzez dardarati,  
izten nindueiarik  
ama samin larria  
ixil baizen busti.

Gabaz oso nengoan  
leiak otzez erretan,  
jantzi zurietan.  
Nik ez neban errurik,  
ez neutson ezer egin  
ortzeko bidetan.

Odei baltzak ondamuz  
zuri biurtu ziran  
ur gogorretan,  
ama-lurren guriña  
mingostu gura eusten  
zapaltze orretan.

Irudi zuria da,  
gizon zurikeriak  
miñak zurituta;  
saldu eta zapaldu  
ninduen ankerkeriz  
biotza minduta.

Geroz, beti, egarriz  
egoera larrian  
edur-ekaitzpean.  
Ur egarririk ez dot,  
zuzentasun leiez naz  
etxeko lurrean.

## NEGU BALTZAK

Negu baltzak ba-ditu  
bere berezko diran  
zirizko zauskadak.  
Aldiko atxurlari,  
baña minkor barrentzen  
diran eztenkadak.

Oñastarri zorrotzak,  
gorri, zital ebiltzan  
odeiez burrukan;  
urak alkar joten sua  
sortu eben indartsu,  
izadi goietan.

Sua gero dardari  
ortzetik berantz arin  
etorren lurrera.  
Zugatza ta gizona  
bota zituen bean  
era bat-batera.

Oñastarri ilkor ori  
ekaitz gaiztoa izan zan  
gizon on arentzat;  
goian iñork ez eutson  
ego txarrik ebagi  
kondenamendutzat.

Berak il zituen, bai,  
gizadi ta izadia  
tximist indarragaz.  
Ez nun madarikatu,  
Indar itsu zan eta,  
oiñazkar suagaz.

## ALDE

Alde guztietatik  
ugerkia dario  
inguru-mariri.  
Jakituririk ezta;  
jakituriz alkartu  
direla diduri.

Euri ziriémiriak  
ugerrez narrastu da  
oso nire egala.  
Arkaitz lapa iduriko  
ezarri jat lanbrua  
zikin uger-ala.

Ama ta lurra izanik,  
nire bizia austu  
nai dabe zanpaka.  
Ta masma iguingarriak  
euri lanbrotan dabiltz  
eunari zirika.

Neure azkatasuna  
kendu nai ete dauste  
masma t'euri lanbru?  
Gaitz zomorro kaxkarrak  
niri bizitz erpeka  
egiteko belu.

Beti, irudika bizi  
naz; erri, pizti, gizon,  
neu estutu nairik;  
zerk lotu nai nau kateiz?  
Aiderdi txarretatik  
ez dot nai mamurik.

# NIRE

Nire amak ez eban  
biraurik ezagutzen  
bere etxe maitean.  
Gaiztakeri ortatik  
azke, azke, bizi zan  
mendi bazterrean.

Iparretik egora,  
sorkaldeitk bestera,  
nire bazter danak  
erabilen izkuntza  
mamintsu ta garbia  
zan, ene euskaldunak.

Ez neban ezagutzen  
ncu iotu nai ninduan  
birauzko kateirik;  
nazkagarria jazan  
zaurizko min ustela;  
ez nun oiakorik.

Nire goratasuna  
etzan bakarrik izan.  
Nire nai guztiaz  
eta seme-aiabak  
sortu azi genduzan  
izkuntza egiñaz.

Berez ta geure gogoz,  
euskerak berea dau  
izkuntzaren ederra.  
Millak urteetan egin  
dan euskera lengo da,  
gure sen-susterra.

## I ÑOZ

Iñoz ez neban uste  
izan bizpairu lagun  
zireia guztia;  
zorakerí gogorra,  
ausardikeri baltza  
neu guzti izatia.

Seme on jakintsuak,  
aiaba zorakorrak  
landu eben, gogor,  
euskal bizi arloa  
edestiaren baitan,  
lan ta lan maitekor.

Mendi, soio, zelaiak,  
euskal-etxe barria,  
nundik artu dozu  
zentzun indar garbia,  
izkuntza berezia  
ain bikain argitsu?

Euskal izkuntza zarrak  
ez eban birau baitzik,  
ez laia kirtenik,  
ez asta-makillarik,  
ez motroillokeririk,  
euskera bakarrik.

Len ez neban kateirik.  
Semeak saiatuta  
aurrera niñoian  
euskal bidetik soil,  
neuregan indartuta  
biztu nintzarian.



## LEN

Len, seme ta aiaba,  
obeto aitzen ziran  
nire iur maltean.  
Gogorkeri malmutzak,  
len bazterturikoak,  
gaur dabiltz etxean.

Jakitun edozein da  
ezer ikasi barik,  
berezko jakiñez;  
lengoak, arduratsu,  
jakituri batzen  
ebiltzazen ziñez.

Jende askorengandik  
eritxiak batuta,  
ezautu ninduen:  
Euskal-erria oso  
zarra da bere izatez  
ta giroz oberen.

Orain nire izatea,  
euskaldunena dana,  
aldatu nai dauste;  
olan kenduko ete  
niri, betidanik zor  
jatan neure izate?

Mire azkatasuna  
nork zapuztazi beikit  
baldraskerietan?  
Egiz, zein gogorra dan  
bizia galdutea  
jakinkerietan...!

## M I N

Min artzen dot min, lerrez,  
ama-maitasunean  
betidaniko zer  
guztia galduz galtzen  
ikusten dodanean,  
ta bizia iltzer.

Millak urteetan  
euskera egokitzen  
joian lan bidez;  
seme zintzoak nitun,  
bear egilleak ta  
jakitunak zīñez.

Gizon aundi orrek gaur,  
asko ixilpean dagoz,  
izar argidunak.  
Arek zaindu ninduen,  
geien, erriagaz bat.  
Egiz EUSKALDUNAK.

ORIXE ta LIZARDI  
ENBEITA aURRETXINDORRA»  
euren doai biziz  
erríari begira,  
almenak zorrozuta  
bultz egiten argiz.

Orrexek ziran nire  
azkatzaille bakanak,  
berez argitsuak,  
borondatez irmeak,  
lan ta lan ari ziran  
seme kementsuak.

## NIRE

Nire bizia ugaltzen  
joian ama-lurrean  
ertzetik ertzera.  
Izkuntzaren giroa  
jakituriz edertzen  
semeen jardunera.

Izarrak izar geitzen  
ziran indarrez bultzaka  
erriko giroan.  
Ibargutxi Jon Gurutz,  
Manterola Gabirel  
anaien saldoan.

Amaren lurra jorratuz  
bizia joritu zan,  
jakintz t'eder miñez;  
euskal ortziko izarrak  
argituz, nire lurra  
bikaintzen ederrez.

LAUAXETA, argi barri,  
dardara agertu zan  
mintzaira azkatuten;  
indar barriak geitzen  
asmo onagaz landuta  
bizia zabaltzen.

Goizeko izarrak ziran  
ni poztu ninduenak  
eguzki astean.  
Izar argitsu orrek  
emon eusten bizia  
euskai izatean.

## GIZON

Gizon argi trebeak,  
egizko erritarrak,  
agertzen ziran.  
Euskerari begira,  
euskera maitatzen  
erneten jatazan.

EUSKERA BEREZ DANEZ,  
norbere mamiñagaz  
eta odol biziz.  
Berezko era danez,  
garbi artu ninduen  
gizon onek argiz.

EGUZKIZA t'AGIRRE,  
biak abade legez,  
erraldoi gailenak.  
Izkuntza sendu eben  
erri onen gisara  
jakitun gurenak.

Euskal giroan jaio,  
euskal giroa artu,  
erri miñez gogor,  
jakituriaz landu  
ta erriari emon  
eutsen izkuntz bizkor.

Erriaren egia  
jakituriz zabaldu  
eben amanean.  
Garden eta giartsu  
da onen izkuntz-era  
eusko baratzean.

## EGIAK

Egiak azkatuko  
zaitu zeure bizitzan.

Egizko egiak:  
argiak diztiratu  
bear ditu etxeko  
ertz eta erdiak.

Euskal jakituria,  
euskera sendoz betor  
euskaldun bizitza.  
Gizon leiñargi orreik  
euren arnasaz emon  
euskuen izkuntza.

Ama-lurrean bizia,  
izkuntzaren arnasa,  
biak bat zirean.  
Gure izamen jatorra  
gizon orreik ondoan  
biztu ciñalean.

Gizon argiak landu  
eben euskal izkuntza,  
ni azkatuagaz.  
Ama naz ta zain nago  
jorratu zan bidea  
zuzen eritxiaz.

Egiak egi dakar  
zuzentasun arotik,  
bideak argituz.  
Gizon jakintsu areik  
zuzendu ginduezan  
erri bidea artuz.

## JAKITURIAK

Jakituria, sua  
bear nitun, bizia  
egiz gaizkatzeko.

Indar gabarik dago  
illunpeko gizona  
galzoriz ilteko.

Amak ez dau ilterik nai.  
Bizi leia berezko  
dot errai erdian.  
Poz ori artu neban  
seme argietatik  
neure egun sentían.

Erriak zear, dizdiz,  
argia zabaldu zan  
baserritaraiño.  
Semeak, arren, entzun:  
andik sortu da gero  
euskera gaurdaiño.

Baserriak eutsi daust  
indarrez ta bizi  
oiñaren gaiñean.  
Euskal-erri osora  
joan adi, euskera,  
egazka aidean.

Uriak eta kaleak  
euskal mintzaira giroz  
euretu egizak;  
euri yagokiazan  
maitelariak dituk  
euskotar guztiak.

## IZADIRANTZA

Izadirantza nator,  
orain, bizia ikusten  
bere sen betean.  
Maitasun miñez nago  
abestia zor dausat  
neure min gaiñean.

Argía, argi egidak!  
Izadia eder dok  
biziaz joria;  
uxa akitez laiñoak  
garden begok bakean  
adimen argia.

Adiñaren bulkoa  
egazkari doala  
aidez aide zear.  
Trabarik etxuat nai  
arazo garbi ontan,  
urdin, sotii, mear.

Adimenak zorroztu  
dagistazala ortzak  
mailluka otsean.  
Egia bildur gabe  
aidetuteko ortz bidez  
lurraren *gaiñean*.

## GIZONAK

Gizon !, cure gilborrez  
gora gaiki, jaiki indarka,  
itzartuz bat-batez.

Kemenik aundienaz  
ez geratu biidurpe  
lurrean negarrez.

Biziak erne-miñez  
astindu jituk lurra  
azkatasun billa.  
Argia nai jok, berez;  
sortzetiko egarriz  
dabilgun cskea.

Begia, zurtu adi  
izadiko argitan  
lillura gaberik.  
Begikera zorroztu  
arranoak bezela  
gauzei oraturik.

Kirioak, astindu,  
gizon alperkeria  
usteldu ez daiten,  
Gogoak lagun jok, bai,  
gorputzaren indarra  
eder urratuten.

Gogoa zuzpeltu adi!  
Ainbeste eder agiri  
dan izadi onetan.  
Gogoz batu dagigun  
uztaro jori ori  
euskal baratzetan.



## BIOTZA

Biotza, akulua izan  
az eure izatez  
gizadi bizitzan.  
Lurra eme-miñez jagok,  
edertasunez josita  
maitasun galdatan.

Biotza, esna adi,  
izadi ederrari  
begitu egiok.  
Lurrak, mendi ta beian,  
ixillaren izpitan  
maitea jariok.

Ederra deika jagok  
maitasun almenari.  
Izadi sakona  
iurrunetan ari dok  
bere biziko garrez  
gozatzen gizona.

Izadia dok eder,  
Iagunak ederrago  
argizko kuskuan.  
Geiago ez jak ezer  
biotza urratzekorik  
bizien barruan.

Biotza, zabaldu eik  
atea. Artu egik  
lurraren sabela,  
lagunen maitasunez  
odol arte orretan  
berotu daitela.

## GIZON OSOA

Gizon oso, ernai  
adi, gora goraka,  
indar barrietan  
bizia jatok bizi,  
barriztasuna putzka  
barruti zarretan.

Gaisorik ez joat nai,  
osasuna bultzaka  
datorkidanean.  
Indarrak gora jaso,  
izarrak baiño gorago  
euren bestaldean.

Egaz egin bear jok  
gizonak jakituriz,  
ta maitasun bidez;  
gorantza begiratu  
eta goi izpiak batu  
onaren ederrez.

Egaz oakit, gogo,  
urrutiko mendira  
gibel urdiñera.  
Zelai arte aretan  
bazka egik uriña  
gogozko pozera.

Geldi ez adi egon.  
Aurrez daukan bizia  
iiezkorra bai dok.  
Samiña dok galtzea  
amak emoten ditun  
doai bereziok.

## BIAR

Biar udabarria  
da ta gogo barriak  
dakarskuz muñiera.  
Negu otza iltamuan,  
alkar agurtu ezin.  
Nork biur ienera?

Negu otza doa iges;  
bere bizi baldresa  
bigurrika dabil,  
azken gaitzak emoten  
burruka gogorra dau,  
ta il egin bear,

Otza mingarria;  
otza ez da egia,  
ez dauka margorik.  
Orza ez da maitasun,  
negua ba-doa iges  
erruki gaberik.

Negua ankerra izan zan  
begirapen gabeko  
gogorkerietan,  
berezko gogorkeri  
zentsunik gabekoa  
bere barruetan.

Itzik ez dau egiten,  
etoi baitza dirudi,  
begi okerrakin.  
Agiñen kirrizkada  
dariola oraindik  
gaiztoen erpakin.

## NEGU

Negu egun bakoitzak  
itz-egin ai ba'ledi,  
zer esango ete?  
Gizadia bildurrez  
eukan bere erpetan  
maitasunik bage.

Osoz gogorra izan zan,  
baiña askoz gogorrago  
iagun txiroentzat.  
Etxe zarrak zer jantzi  
ez, ta ateak zabaiik  
negu battzarentzat.

Errukarrien zera,  
beti, soiñu samiña,  
olan oí da izan.  
Norbera negu antzez,  
ta negua inguruan  
errukarri taban.

Errukirik ez dauna  
basa piztia iduri,  
itlun, otz eta baitz.  
Jakituririk bage,  
gizona zígortzen dau;  
gaisoen bizi latz.

Urru tira beioaz  
maitasunik ez daben  
neguko illun otzak.  
Azkatasuna bekar  
illunetik argira  
neguaren ertzak.

## AMAITZEN

Amaitzen ta urreratzen,  
Ingoa usteltzen joian,  
berezean ilten.

Bízí barría agertzen  
jaiotza samiñctan,  
nekezka erneten.

Aizea ezti dabil  
iagunaren poz gíroz,  
osasuna dakar;  
lagunak jagi dira;  
bearreko bideak  
ogirako bear.

Ego usaiña dator  
neguari irrika  
urdiri zabaieran.  
Bigunki ikutu daust  
ego bako aizeak  
aidez joakeran.

Baso arteko egur,  
arri, ida zar, makilla  
ta zugatz enbor,  
garbi agiri dira  
bizitza barriari  
itxaroten pozkor.

Astunpetik unen nai,  
*len* negu baltza nausi.  
Kateizko erpeak  
izan ditu neguak  
anker ta erpalari,  
oartu gabeak.

## NEGU ZARRA

Negu-gogorkeria  
igesi joakcran,  
ostikoka ari da,  
lengo nausikeria  
itzi bear dabela  
ezin siñistuta.

Gogorra da izan bere  
oitura txarrak itzi  
ta it egin bearra.  
Lengo nausikeriak  
salatu citen dautse  
ozka barne-arra.

Baiña oitura zarrak,  
etoi, zakar baldanak,  
—zar ta okerrago-  
eurenentan jarraitu  
nai dabe bizitzari  
eusten aurrerago.

Gaiso txarren kontua,  
neguak izadia  
—baita gizadia-  
rncnperatu nai zitun,  
beti, bere erpapean  
arrano dongia,

Oteak ez-jakiñean,  
baiña itsu gogorkeriz  
lengoa jarraiki,  
goitu egin gura dau  
aundikeri bigurriz  
izadiko bizi.

## LAIÑOA

Laiñoa, orza, illuna,  
negu azken ondarrak  
udabarriari  
eskua emonda dabiitz,  
ixiiik baiña gogor,  
adi lur otzari.

Ezer ez da ikusten;  
negarra dario otsez  
aitz biotzegari,  
laiño aizeak zabal  
inguratu dau oro  
gabaren gidari,

Arkaitz gogortasunak  
ez dauka kiriorik  
eta ixilik dago;  
etsai gogorragoa  
goitik jarki jako ta  
bakea naiago.

Laiño baltzizka meiak  
zer egiten dautso  
arrika egiñaz?  
Arririk bage joten  
atxa laíñu sorgiñak  
buriez buriatuaz.

Luzca da negua  
ta askoz gaiztoago  
ezaren ezagaz.  
Aginka mindu nai dau  
udabarri bizia  
erpe zorrotzakaz.

## ILLUNA

Illuna eta otza  
asmau ditut gaur goizez  
etsaigo batean.  
Biak zorrotz ebiitzan  
burrukalari gogor  
izadi gaiñean.

Izadi ta gizadi,  
iaññoaren azpian  
io egozan ixil.  
Kukurtuta gaisoak  
gauaren ixilpean,  
ez bizi ta ez

Otza, eza, bat dira;  
ezaren ez biurrak  
turpean sartu nai  
gaitu bere menpera,  
zaratik egin bage  
otz-miñez aseka.

Ezak, gaitzik gaitzenak  
amaren sabelera  
eroan nai gaitu,  
antxe, gorde, bat-egin,  
amaren biotzean  
lurragaz estaldu.

Egiz, pozik gengokez  
maitasunaren izenean  
amaren barruan,  
bizia xurgatuten  
ba'gengokez joritzen  
ekiñal altsuan.



## NEGUAREN ERDIAN

Oierki kutsurik ez...  
Neguaren erdia;  
biotz gabekoa  
zirudian gaur goizak  
erriko zeiaietan;  
illaren osoa.

Guztia itun egoan,  
otzak indargetuta  
bizia ondatzen.  
Nire aiak ezer ez  
eikean, otzez,  
odola geratzen.

Oierki aundiena  
otzaren bildurra zan  
zainen barruetan.  
Egur azurrak kirrisk,  
ez dan orzaren otsa  
geitzen zapalckeran.

Oro estaidurikan  
t'czin ezer ikusi  
bizkar guenean;  
maitasuna il jatan  
inguru baltz areitan  
biotz barrenean.

Baiña zer ausartu naz  
neure miñez esaten  
otz-ikaraka?  
Nire biotz gorria,  
udabarrian, maitez  
dago dardaraka.

## NIRE ETXE

Nire etxe aurreko  
zelai txiki-txikia  
oriegiz jantzia.  
Ez dauka arantzarik,  
itxaropen betea,  
arras oriegia.

Jantziaren ederra  
nork aukeratu dautzu  
gaur udabarrian?  
Aurtengo moda barri  
izanen apaingarri  
zure soin garbian.

Iñork ez dagitzaia  
edertasun joria  
ondamuz lapurtu.  
Zeu zara on zarana,  
egin zaitunak egin,  
zu berea zaitu.

Ederrez bizi zara  
begien eztingarri,  
nire etxe aurrean.  
Zure ederrez bizi naz,  
pozkiroz, kaiol ontan  
orlegi aurrean.

Kioropila oriegi,  
goizero ditzirutzen,  
argitsu, arrosko.  
Egunero berpiztu  
nire zeiai txikia  
eder orlegizko.

## I T Z

Itz dagigun biok gaur,  
zelai maitagarria,  
aiskide giroan.  
Gora-goraka dager  
arrigarriz beteta  
bizia muiñoan.

Bizia maite dozu  
udabarriz jantzia,  
goizez, eder-miñez.  
Bizia opa dautzut  
eguna sortukeran  
eguzkizko printzez.

Bizia dakarskuzu  
kioropila orretan,  
zelai txiki maite;  
zure biziaz bat naz  
oriegi gardenetan  
zorionez bete.

Nun dozu egiltea...  
eder orren jaubea...  
eder bera dena?  
Ederrak dira izarrak,  
baiña zuregan dakust  
izar ederrena.

Zu zara izar berbera  
orlegi dízdízetan  
ta urrezko printzetan,  
argia dariozu  
arrokeria barik  
zure ostoetan.

## ON-GIROA

Maitagarri zakustaz  
goizaldian goizero,  
zelai orlegia.  
Biotza emon dautzun  
maitasuna, nun dago  
zure mañtalea?

On-giroa dariozu  
maitezko irribarretan,  
zabal, edonundik.  
Erleak datorkizuz,  
laster, ona xurgatzen  
mendi barrenetik.

Zure maitasun garra,  
berez, jatort bamera  
biok bat eitera.  
Ontasun garbi ori  
orlei garden dirudi  
illezkor antzera.

Egunero, zelaia,  
aurrez aurre biziko  
gara argi artean.  
Maitasuna argi da  
maitaleen biotzetan  
zelai muskerrean.

Maitasunik gabeko  
zelai garbirik ez da  
izar urrepean,  
orlei garbitasuna  
maitagarria da-ta  
itxaropenean.

## ORLEGI

Orlegi orlegia  
da nire etxe aurreko  
zelaiko zingira.  
Bere orlegi piñak  
barru zirrara dagist  
begien ninira.

Egun-senti barrian  
iñork margoztu bage,  
barri agertzen da.  
Lengo orlegia iila zan;  
gaur biziago dator  
eguzki isletara.

Egun bakoitzean, goiz,  
orlegiago dakust  
nire zelai pitin.  
Biziago dagerkit  
urrengo egunean  
itxaropenakin.

Udabarri guztian  
bizi ikusiko zaitut  
leio barrenean;  
biziz poztuko nauzu  
zu zakustazanean  
egun urratzean.

Udabarria, kanta!,  
kanta orlegiari  
abesti barria!  
Eguzkiaren kanta,  
urre-gorri printzetan  
zelai oriegia.

## MAITASUN

Maitasun eriotan  
goizean ikusi dot  
zeiai orlegia.  
Nire zeiai txikia  
bitxi zuriz jantzi da  
eskarrez betia.

Egi utsa dario  
zelai berpiztuari  
orlegi, orlegi;  
lur giarrak bedarra  
gogotsu dakar gorantz  
eguzkitara adi.

Egi, argi ta lurra  
oro murgildu dira  
anabas maitian,  
zelaiko lur mamiña  
da guztien kabia  
zoramen garbian.

Ama lurren sustraia  
maite miñetan dakust  
zelai muskerrean;  
bizia zabaltzen dau,  
gero ta geiago,  
eguzki printzean.

Iñolaz ezin aantzi  
nire zelaiko giroa  
pozaren dardaraz;  
goiz eta arrasberan  
samurkiro deitzen daust  
maitasun algaraz.

## GAUA

Gaua, otza mingarri,,  
erpa baltzak agertu  
ditu illuntasunak;  
bízía batu otzez,  
arri baltzak gogortu  
egin ditu illunak.

Goizak ego zuritan  
argía dakar, pozez,  
printzen dizdizeraz;  
zelai guztia dago  
argiaz urretuta  
laztan ederkeraz.

Gabaz lora txikiak,  
aize ankerrak jota,  
batuta egozan;  
otzaren otzez kiskur,  
miñaren miñez gorri,  
goizez odoletan.

Gero, eguzki argiz  
zelaia gorbiztu da,  
beroz, maitasunez,  
argiaren dírdíraz  
lengo lora minuak  
aldatuz ederrez.

Nire zelai txikia,  
zuri zuri, jarri da  
loretan lorea.  
Atsedenez bete nau,  
eskerra dariola,  
zidar eta urrea.

## LENEN IZPIAK

Egun lenen izpiak  
ortzian bera datoz,  
poztuz, argitzera.  
Goizaideko otz-kirria  
pin sartzen azurretan,  
ni jarriz miñera.

Otzik ez dot ikusten  
ego mattzurak dauz-ta;  
azeri, azeri.  
Atde guztietan dau  
egon leku aidean,  
ziri, piri, meri.

Orza ez da egia,  
arotz ta mingarri bai,  
zearka ibiliez.  
Izadi ta gizadi  
bere egapean daukaz,  
erdi-iliik, gosez.

Argia ta egia  
egun-senti barrian  
otzaren azpian...  
Illun egoan lurra,  
argitzen ari da  
maitasun jorian.

Argiak izadia,  
izadiak argia,  
alkar maite dira;  
goizaideko agurra  
zorionez betea  
eder da guztira.



## LANTZARRA

Lantzarra otz-otz dago  
goiznabar bakartian  
ibai billaidean,  
lantzarreko bedarrak  
mingotx miñ artzen dabe  
oiñak zapaitzean.

Maitasuna dario  
lantzarrak, zabal zabai,  
zarra ta barria.  
Nire biotzak ezin  
dau xurgatu jario  
orren eztikia.

Lantzarra intzetan datza,  
lo-zorrotan dirudi,  
erbi zurren kabi.  
Eiztaririk ez dabil...,  
lantzarra ixilik dago  
ta erbia nagi.

Lantzarra zabai zabal  
egia berbera da,  
goiz argiz intzetan,  
janaritzat emoten  
bere bizi osoa  
beiar orrietan.

Lantzarreko bakea  
goiz-ozkirri artean  
ezkutua irudi;  
barruko asmamen au  
egon eziñik daukat  
iantzarrar adi.

## GIROA

Lantzarreko giroa,  
egun senti onetan,  
berez da maitekor.  
Barruak nai dabena  
opa-opaka dago  
goizaldian lotsor.

Lantzarrean lau dana  
iruntz zuritan dager,  
bakardade miñez.  
Zugatz zurizka loraz  
bake isillean dago,  
maitasun indarrez.

Bakez dago zelaia,  
goizaldeko usaiña,  
lurrun garbi garbi  
lantzarrari eskeintzen,  
bakarrik, zugatz eder  
loraz zuri zuri.

Egi ta maitasuna  
izar zuriz beteak  
zugatz kukuluan,  
bakarrik, argiz eder,  
ederrena goizean  
ñirñirka zeruan.

Bedarrak intzez dagoz  
gora-antsiz joranetan,  
zugatzerantz adi.  
Lorearen biziak  
Jainko Egillearen  
do aiz kuin dirudi.

## ORAINDIK

Oraindik geldi dago;  
ederrez ezin daiket  
gogoá betetu.

Lantzarra jakituriz  
beterik dago goizez  
zuri ta gorritu.

Argiak goitik bera  
bialtzen osasuna  
zelai orlegira.  
Maite indarrak datoz,  
argi-izpi biurtuz  
lantzar-gain erdira.

Oparo ta gozoki,  
sartzen dira zelaira  
eguzki printz gorriak;  
zelai orlegia  
ta zugatzaren lorak  
usaintsu zuriak.

Egia dabil bizi  
lantzarrean dantzari  
argia zabaltzen,  
berez dakarren bidez  
jaubeak aginduta  
bizia indartzen.

Bedarra, lurra, beia,  
zer dago or itxaroten  
argi izpiari,  
argia bera bai da  
lantzarreko Jainkoa,  
itz eta itz iurrari.

## BEDARRA

Bedarra lantzarrean  
artega, ezin egon,  
maitasun betean;  
begira ingurura  
on-artzen edonundik  
gozotasun artean.

Zelaian odolik ez.  
Oro da orlegia,  
zugatza izan ezik.  
Bedar guztiak maitez,  
zugatzera begira  
indarrez beterik.

Zugatza, zuri zuri;  
bera bakarrik nausi  
lantzar zabalean.  
Iñola ez da Jainkoa,  
Jainkoak egiña, bai,  
edertasunean.

Bedarrak dizdizetan  
ari agur egiten  
makurtasunean.  
Gurtzerik ez egoan  
zugatz ingurumari  
lau maitasunean.

Lora zuriak usain  
gozoz eta ederrez  
onetsi zituan.  
Banan banan, bedarrak  
maitasun gorri-gale  
eder okítuan.

## MENDIAN

Mendian nengoan goiztar  
argiaren aurretik,  
euskal ízadian.

Mendi ederrak nitun  
ene begi aurrean,  
goiznabar jorian.

Maíte indarrak eroan  
nindun mendi gaiñera  
ederra gozartzen.  
Erlerik ez egoan  
loretan oraindiño,  
uruna xurgatzen.

Lora bat neukan, aurrez,  
bakar ta berezia:  
geure euskal-erria,  
ederretan ederren  
maitasuna zan, goizez,  
ene erri guria!

Gure euskal izadia  
maite-miñetan neban  
bizia eskeintzen;  
buruz ta biotzez,  
ar-alan etorkidan  
maitasuna iertzen.

Begira ta begira...  
geiago etorkidan  
argia begirantz.  
Maitatu ta maitatu,  
biotza leiatuten  
ama-lurraganantz.

## LURRA

Ez lurrik, ez arririk,  
etzan ezer asmetan  
oiñaren oiñpean.  
Goiza argitu gaberik  
gauaren illunpetan  
bakar-bakarrean.

Lenako guda otsik  
ez da asmetan mendian.  
Lur guztia ixiiik.  
Ixilla da itz-indarra,  
oiñastarri gisara  
ekin ta ekiñik.

Azeriak ixiiik  
dagoz leza zuloetan;  
gizon bizar bildurrez  
kaban egon bear  
dabe azeri zarrak,  
bestelan, ai! lurrez.

Sugeak ez dau irrintzik;  
lurra jaten ari da  
pizti narrastia.  
Narraseko bizitza,  
iege bildurgarria  
bere gain jarria.

Ixil dago basoa  
olerkariarentzat,  
urrin bakarrean.  
Mendia ilda ez dago,  
oroimen zarrak daukaz  
barruko ixillean.

## ARGIA

Argia an urrin dago,  
urdiña bera baiño  
zabal eta arago.  
Argía garden dabil  
suzko bitxi artean,  
an goian gorago.

Azkatasun guztiaz  
garretan ikusi dot  
izarren artean.  
Sua, argia, beroa,  
urrezko jantzi dira  
on egin naiean.

Izar azpiak laiñoz,  
ta izadia illun dago;  
goiznabar ituna.  
Burrukan ari dira  
mendí-ibarrak jota  
argia ta iliuna.

Argizale gaiilurra,  
argi-miñez basoa,  
goiz-eskabidea.  
Etsai ankerrak goian  
laiño baltz biurturik,  
il dau argi mea.

Odei burrundariak  
etsaigoan zorroztu  
dauz bere erpeak.  
Baiña oiñastarriak  
erre ta ilgo ditu  
odeien legeak.

## IBAIA

Erreka bigurria  
eta ur bedeinkatua,  
sugea iduri;  
Oka maitagarria  
solo artean dabii  
zearka dantzari.

Zelai, lantzar orlegi,  
soio ianduak gorri,  
martirizko iduri;  
orlegi itxaropenez  
jantzi da goizaldian  
eusko etxe zuri.

Ibaia dator berantz,  
mendiko ur gardena,  
errukirik bakoa.  
Beste odoi gorria  
mendan geratu zan  
azia aiñakoa.

Urak aurrera doaz  
amaren sabeiera,  
itxaso urdiñera.  
Gizonen ur gorriak  
lurraren sabetera  
ama maitatzera.

Oka! Oka ibai!,  
zure urak ez dauka  
margorik bidean.  
Giza-sume odoia,  
gorri gorri, ixuri zan  
Oka ibai aurrean.



## EGUZKIA

Eguzkia bultzaka  
maitasun-gar bízíetan,  
itxasoa baiño  
arago ta berago,  
odolezko da ta urak  
ez dau itzaliko.

Baiña sua goraka  
dator berezko indarrez  
urdiñean zear;  
izar artean dabil  
ego bage biribil  
argiagaz dar-dar.

Zeruetara igo da  
ezeren kutsu bage,  
urre-izpi arnaska;  
lurra baltz ikusten dau,  
otz-illunak bat-einda,  
laiñoak narraska.

Illuna eta argia  
egun-senti goizean  
etsaigoan sartu;  
biak indartzen dira,  
odolez eta ugerrez  
zerk zer menperatu.

Betik taiño baltz orza,  
goitik suaren garra,  
bien bitartean  
burruka gorri otsa  
erabagi ezinda  
txinparten artean.

## NARRAS-MARRAS

Narras-marras barrabas!  
Bedar, iorak, oteak,  
baltzituta dagoz.  
Neguaren erpea  
iuzatuz doa trinko  
abarka zar giroz.

Min ei dauka bedarrak,  
odol gabeko miña,  
beti aiz otzetan.  
Min dauka gizonak,  
odolak geraturik  
zaiñeko bidetan.

Min dauka aizeak, bai,  
egazkada beltzetan  
amorratutean;  
irrintzi egiten dau,  
gorroto-egoz joirik  
mendi baztarrean.

Izadia dardaraz,  
lotsatuta bezela,  
kiskur agiri da.  
Odoiak gaidu ditu  
otzaren doillorkeriz  
iendik zapaiduta.

Unen nai, ezin unen,  
guda baltza sortu da  
zelaian gogorki,  
argia ta laiñoak  
burruka itzalean  
ari dira ankerki.

## EZ DAUKAT

Ez daukat etxerik, ez!  
Txiroa naz txiroa,  
gogoz eta izatez.  
Txirotasuna nai dot  
neure barruan gorde  
ta maite biotzez.

Bizia zabaitzen daust  
ikusbide osoan  
txirotasun onak.  
Txiroak txirorik ez  
dau iñoz zapaidu bear.  
Ez ai da, gizonak?

Euskai izadia da  
nire jauregi zarra  
gizonez ta lorez.  
Bizia, maitasuna,  
ortxe artzen ditudaz  
neure euskal bearrez.

Zelaiak agurtzen nau,  
mendiak gora diraust,  
euskaldunak maite;  
iur deun onen gaiñean,  
bizi gura neuke  
bakez eta azke.

Auxe da nire etxea  
egiz maite nebana,  
sendo, zindo, zurra.  
Txirotasuna nai dot,  
nire etxea izan dedin  
sortu nindun iurra.

## DAR DAR

Argia doa dardar,  
aideak zear mendi  
ta zeiaietara,  
arre dagon iurrera,  
bakezko ibarrera,  
iturri artara.

Mungi aldeko ibarrak  
ixii egozan gabaz,  
maite-io girotan;  
iaíño izpi zuriak  
sortu ziran illunez  
landa oparotan.

Lurraren arnasa zan  
goizaideko zuria,  
eguzki printzekaz.  
A bai urre meaztea  
irura zabaiean  
argi egoekaz!

Zabaldi zurizkea  
maitasunez legctxe  
agiri da jantzíz;  
eskerémiñez azala,  
goitik dator su-garra  
iurra esnaraziz.

Zuriak izpituaz  
gorantz doaz igesi  
zerua gurtzera;  
gure ibar zabaienak  
maitasunez beterik  
gízon aulki dira.

## SOLLUBE

Sollube astun dager.  
Zer dozu biotzean  
barrunbc orretan?  
Aurpegiz zakust illun;  
zerk mindu zaitu, gabaz,  
itxas egatean?

Zure gerria zangar  
dago euskal lur danez  
itxaso gaiñean.  
Euskai urak ezotzen  
zaitu, euri danean,  
gure zerupean.

Ekaitzak sarri mintzen  
zaitu oiñastarriz  
osasuna aultzeko;  
ni zuri adi nago  
zure oin barrenean  
lurrari eusteko.

Zure egun aundiak  
gogoan ditut, iñoz  
aztu ezindako;  
edurra ta txingorra  
euri-aize gogorra,  
aspergarri jako.

Baiña, Sollube maite,  
zu, izuak urratuta  
zagoz niin baltzean;  
seme-odol gorria  
daroazu irakiten  
errai-barrenean.

## IZADIA

Izadia esnatzen  
gaur ikusi dodan lez  
azaldu al ba'nei.  
Bizia ikusi dot  
erne-miñez, ta izanai  
egitsen zoli dei.

Otz oraindik lurean,  
odeiak aide zear  
argiari kiñuz,  
beruna jausi daia  
goi ertzetik dirudi  
lur oro estalduz.

Otz-kirri eta illunez  
dator egun-sentia  
gaur gure lurrera.  
Eguzkia, nun zara,  
argiz jantzia da-ta  
udabarri bera?

Gizonen pekatuek  
ezaindu al zaitue,  
ene lur maitea?  
Gizonen maitasunak  
zugan zabalduko dau  
bere poz betea.

Azke, azke ei dabil  
zeiaiazen bizia  
geroari adi.  
Eguzkia ba-dator,  
ta azkatuko dau iurra,  
itxaso, t'etxadi.

## ETXEAREN

Etxearen ostean  
erne ta sendotu da  
larra ta sasia.  
Biztu-miñetan dago,  
urterik une doa  
sendotzen gaiztoa.

Katu-katarrak dabiitz,  
marraoka neguan  
sasi ingurutan.  
Sugeak udan txistu,  
burua goratuta  
sasiko girotan.

Sasiak indartuten  
urtero indartsuago  
auzo baratzean.  
Neskatillak ez asti,  
ta gogo gitxiago,  
atxur-ian bidean.

Atxurra ioi ta gogor.  
Arantzak barriz zorrotz  
esku zurietan.  
Gero iarrak nagusi  
eta baratza sasi  
ezkontza goizetan.

Gazte barria dator.  
Ortulaua ete da?  
Lar baitzen erroak  
eldu dira auzora  
arantzaz ondatzera  
auzoko soloak.

## BARRUKO

Barruko barrenean,  
argi, ikusiko ba'neu,  
maitasuna zer dan.,.  
Biotza, gorri gorri,  
eskuetan ba'neuka  
maitasun miñetan...

Maitasunak ez dauka  
gorrotorik barruan,  
iraiñik miñean,  
guzurrik min gaiñean,  
ez diru iapurtzerik  
iñoren kaltean.

Maitasunak ezin dau  
gorputz garbia ostu,  
urkoa zapalduta;  
iñor ez dau salatzen  
ta indarkeriz zapaitzen  
grñak eraginda.

Izadia baketan  
ikusi dot gaur, goiez,  
eder eta garbi.  
Maitasuna al da, ziur,  
emon nai dozun ori  
eztiki eztiki?

Ontasun eriotan  
asmau dot izadia,  
ixil abaroan:  
ez egon gorrotorik,  
ezta lapurretarik  
maitasun giroan.



## ARRIAK

Arriak, sasi, lurra,  
oro egoan, ziur,  
deika biotzari.  
Arriak arre, garbi,  
lurra egoan ixil,  
bedarrak dardari.

Maitasunaren rniña  
sartu j'atan barrura  
egal orotarik.  
Bidea, aldatza, larra,  
ezin nintzan betetu  
begi bietatik.

Ikus-miñaren garra  
geitzen jatan barruan  
zelai zabalean.  
Ikusi ta naiago,  
entzun eta ixillago,  
zer naukan barnean?

Usaimena azkatu zan  
erti usaiñetara.  
Au da bai zoria !  
Ura, arantzak, bedarra...  
eztia dariola  
dago izadia.

Usaimena dabitkit  
aidean, bearrean,  
eztia erraian.  
Izadia, goizian,  
bere bizia eztiz  
opaltzen zelaian.

## GORA

Lurra bizirik dago.  
Inda: barriak datoz  
kementsu gorari.  
Ixilik dabiikio  
adu bereziren bat  
buitzaka lurrari.

Gora aditzen dabe  
bedarrak ta lur berak  
abesti bai'lira,  
zerura izarretara  
urdin zabal arteko  
eguzki gorrira.

Eguzkia goi dago  
izar gorri artean  
suagaz garretan.  
Baiña urdin azpian  
laiñoak sortu ziran  
oiñestu bizitan.

Etsaigoa sortu da  
goi urdin zabaiean  
guda dan bezela.  
Gorago eguzkia,  
berago dago illuna  
iaiñozko mistela.

Eguzki lagun dogu  
argiagaz ta beroz,  
gu indartu nairik.  
Laiñoak etsai doguz  
trumoi ta oiñcstarritz  
lurra bildurturik.

## LAIÑOAK

Laiñoak, noizean bein,  
eguzki bera baiño  
gogorrago dira.  
Eguzkiak ezin dauz  
ur-laiño baltzak erre,  
txinpartak dira-ta.

Narraska ta marraska  
ibarrari oratu  
eta gogor dagoz,  
gora-bera ibiliko  
*dira* mendi erpiñez  
curen barru asmoz.

Nik maitasun larria  
asmetan dot barruan  
goiznabar illunez;  
izadira begira  
eguzkiaren galez,  
a ikusi eziñez.

Eguzkia gura dot  
bere indar guztiagaz  
gure zaldientzat;  
bedarrak il egingo  
dira argi ori bage  
gure erriarentzat.

## UI;ABARRI BIZIA

Udabarri bizia  
gorantza gogor dator  
biziaren legez.  
Esnatzeko ordua da,  
egun-senti argiaz  
izateko pozez'

Bizia, maitasunez,  
egoak zabalduten  
ari da zelaian.  
Baserritarrak adi  
zurtasun gogoagaz  
lantzarraren ernaian.

Nungo miñak ikutu  
deusk biotz barrenean  
gora ta goraka?  
Artu egik bizia,  
eurea dok bera-ta  
orlegiz kiñuka.

Biziak azke nai jok  
aitz zuri gogorretan  
mendi aundietan.  
Bizia azkatasun  
biila joak or zear  
orlegi jantzitan.

Biziak azke izan nai  
jok gizonen barruan  
kateiak kenduta.  
Biziak abestu nai  
jok biotz barruetan  
azkatasun berba.

## **IBAR**

Ez dot nai iñoia ilterik,  
lur gorrian sartuta  
itxaropen bage.  
Samiñezko dirudit  
ezeren gogo bage  
bizi ta ii, zorige.

Ibar oriegietan  
ugarituten doa  
biziaren miña,  
dizdiz eta arduraz,  
koropii orieietan  
garraren guriña.

Nire lur ta bizia  
neu naz itxaropenez  
ibarreko landan.  
Oriegiz jantziko naz  
euskal zelai gisara  
egun guztietan.

Itxaropen argirik,  
iñoz, ez dot gaiduko  
iurrera begira.  
Nire iur muskerra  
itxaropen betia  
datorkit adira.

Itxaropena maite  
dot oriegi artean  
egiari adi,  
guzur oro kenduta,  
zuzentasuna jaso,  
ori da orlegi.

## ETXE ONDOAN

Etxe ondoan dago,  
alabearrez, zutik,  
bizitza zugatza.  
Asabak, beti, ikusi  
eben, zar, sendo, zindo,  
lurrari biotza.

Zelai orlegiz ditu  
berce sustrai guztiak  
barruan sarturik.  
Lurra baizen sendoa  
zugatzaren enborra  
bizi biurturik.

Amar mille sustraítik  
datorkio gurina  
aren enborrari,  
ama lurren bizia  
aldien aldietan  
artutzen daunari.

Zelai orlegia dau  
aitzin-gibel zabala,  
eder irudia.  
Aurrean dakus mendi,  
arruabarren, ibar,  
ta euskal Mungia.

Zertan ari ete da  
zugatz ori pentsctan  
lurragaz batua.  
Beti, ama lurragaz  
diardu itz gozoetan,  
oso zoratua.

## BEGIEKAZ

Begiekaz iruntsi.  
Biotzagaz maitatu,  
Surragaz usaitu.  
Eskuekaz ikutu.  
Oĩnekaz urreratu.  
Lorcaz bizitu.

Basetxe aurrez dago,  
euskal zugatza lorez  
ederretan eder.  
Zuriz dizdiratu nau  
goiznabarrean galdez :  
norentzat zure esker?

Edurtza aundienean  
zetaia ez zuriago  
zu, gaur, zaran baiño.  
Zure zuriz, dardaraz,  
daukat neure izatea  
barne muneraĩño,

Zuk zurizko jantzita  
uso zuria iduri  
maitasun baketan;  
gizadia, gorrotoz,  
baltzituta agiri da  
amorru bizitan.

Zugatza, ez dot ilko  
zure zuri illezkorra,  
zeure seme naz-ta.  
Begiak argituko  
ditut zuri gardenez  
gaur, zuri adika.

## ZURI

Zuri, usaintsu, eder,  
zugatz guztia mardui  
orbanbagekua.

Ederra, nor zaran zu  
esango al daustazu,  
ain iiliuratua?

Sorkaidetik, gaur, goizez  
etorri al zara zu  
Jainkoa gurtuten.  
Zeu zara ederrena  
basetxeko iurrean  
argia agurtuten.

Begi miñez so zaitut,  
argiz, eguzkiz, maitez,  
giza olermenez.  
Ez dakit zer zaitudan,  
bizia, maitasuna...  
biak zorionez.

Orbanbagea zara.  
Nork zuri ikutu, lore,  
zu donautsi barik?  
Nork laztandu zaituke  
zure urin gozoaz  
mozkortu bagerik?

Geldi geidirik nago,  
ederrari begira  
ederrez sarrera.  
Ixil ixilik nagon,  
zoramenez maitatzen  
adikor lorera.



## O sO

Oso lilluraturik  
ez naz ezertarako  
ederraren miñez;  
zoragarria zara...  
lora zuria, zu, nork  
apaintzen ederrez?

Gizonak ez zaitue  
egin ta zu ba-zara  
arrigarri iurrez.  
Baso etxe ondoan  
zagoz gure lurrean  
eskar zoramenez.

Zelan joan leiteke  
oiñak garbitu barik  
lur santu, zugaiña.  
Nor eldu zuregana,  
miñak ez ba'dauka itzik  
goratzeko aiña?

Lur santu ori ez dot  
nai oiñez donausterik,  
ez zu orbantzerik.  
Urrinetik, ixilka,  
miretsiko zaitut bai,  
garretan bizturik.

## GOIZERO

Goizero noa pozez  
basetxeko lurrera  
gogoa azkatzera;  
gorputza arin doakit,  
astuntasuna itxita,  
egazti antzera.

Gogoa bizkorrago,  
aidean zear abil  
eder giro unean,  
lur azalez dagozan  
mirariak batuten  
loraren gaiñean?

Eztia, maitasuna  
gogo guztientzako  
or dago urundua.  
Zugatz sendo zuria,  
bizitzaren lorea  
doez zanpatua.

Eder au ikusirik,  
nire bizia dardar  
jat udabarrian;  
esan ezin alatan  
bizi gura neuke, gaur,  
zoritza barrian.

Nire zentzun guztiak  
goitu ditu argiak  
ta lur maitasunak;  
poz barriak nai ditut  
lur usain bagekoak,  
zorionekoak.

## GAUR

Gaur asko barritu naz,  
Izadi ederrago  
aurkitu dot goizez.  
Maite miña asmau dot,  
jori, barru beterik  
biotz gaiñez-gaiñez.

Lurra ikusi dot goiztik  
iñoz baiño lurrago  
beragan bizirik;  
arrea ta iñoz baiño  
eder maitekorrago  
barruan sarturik.

Orlegiz egoan,  
oriegietan dizdiz  
bizia eskeintzen ;  
len baiño orlegiago  
guretzat biziago  
begietan sartzen.

Lorearen zuria  
asmau dot, garden-garden,  
ezilkor irusíz;  
jakituria joan da  
osasunaren billa  
bizturi orraziz.

Izadia rnazala  
bízía darioia  
iñoizko jorien.  
Jendea, erruz, doa  
ama-iurrarengana  
bizia biztuten.

## ASUNAK

Asunak, iarrak, iorak  
izadi berberatan  
zelan izan daitekez?  
Eguzki berberagaz,  
aize baten iaguntzaz,  
larrez eta lorez.

Larrak arantza sortzen,  
miña gorputzarentzat,  
biotzari sasi.  
Soioko mamin oro,  
laster, miztuko leukez  
ta iurrak iruntsi.

Arago lorak dagoz  
azal gorri-gorriaz  
maitasun opari;  
lur beraren guriñaz  
eutsi nai ieuskioe  
euren bizitzari.

Ez kutuzko indarrak,,  
iur beraren sabelak  
sortu dauz etsaiak;  
arantzak eta lorak  
aikarren ondoan  
gorroto direnak.

Lagunen arantz zarrak,  
lagunen lora onak  
biotzetik datoz.  
Biotza lurrezko da,  
maitasunez ta arantzaz  
odoiak ba'dagoz.

## GIZONEN

Gizonen gorrotoa,  
mundu zorakeria,  
izadian dager.  
Izadi ta gizadi  
alkar-kide dabiltz  
biak nai aiña uger.

Eguzkia, atzo, eder  
agiri zan ortzian  
bedarrak zabattzen;  
bizia, erioan,  
printzean egoetan  
lurrera ixuriten.

Gaur, iaiño baitzak dagoz,  
gogor, sendo astunak  
goiei oratuta.  
Gero, geldi geldika,  
narraska marrasean,  
berantza geldika.

Zer dakarre iurrera  
goi-aibistariok  
arpegi baltzean?  
Gaisoa, eriotza...?  
noz, sortu da inpernua  
odeien ostean?

Geldi, odei astunak,  
ez sortu burrukarik,  
geldi, itzi lurrari;  
or goian burrukatu,  
gero, sor<sup>g</sup>in gisara  
joan burrunbari.

## BAIÑA

Baiña, noz arte, olan,  
gizon egon-lekua  
zauritu nai dozu?  
Odei zital okerra,  
zoaz zeure gudara  
gaiztoen goiburu.

Lurrak bere bizia  
bizi nai dau pozkiro,  
gizonen izerdiz.  
Jakituriz landuta,  
giro onez jorratuta  
beroaren dirdiz.

Okerkeriz zagoze  
lurrari ezarrita,  
konturatzeke.  
Eguzki naitenean  
odolduko zaituet  
ta suagaz errer

Zelaietako odeiak,  
bildur barik zagoze  
lurrari laidozka;  
ni itxaso naizenean,  
uriolaz itoko  
zuen su-gangarska.

Erpeak zorroztuta,  
burua eroturik  
zakusdaz narraska;  
gaur, lo zoazenean,  
giltzapean sartuko  
zaitut irri-ixeka.

## GAUR GOIZEZ

Gaur goizez, ez dirudi  
udabarria izan  
ieitekenik iñun:  
illun, negarti ta baitz  
*argi* barik eguna  
ezta zoriondun.

Goiznabarrerako leiz  
izadiaren erdi  
erdian nengoan,  
bakarrik, ta begira,  
ienen, euskal errira  
goizeko ezoan.

Osorik maite zaitut,  
ene errí naspíldua,  
iaiñotan samiña,  
aizez iñarrosia,  
otzez zigortua,  
baiña ii eziña.

Mendiak estalduta  
laiño narras-marrasez  
gogorkerietan.  
Odei baitz ernegauak  
izango etc nausi  
gure lur guztitan?

Burrukan ari dira  
iiluna, ura ta argia  
ta tximist gorria;  
lurak ez dardararik  
etsai onen aurrean,  
barne dau bizia.

## BURRUKA

Burruka baitzagoa  
agiri da euskaldunen  
zelai muskerrean.  
Len, bakez, agertzen zan  
euskal lorategia  
ametsen artean.

Lan ta lan ari ziran  
erriaren bidetik  
gogo lantzailliak.  
Zelaiak orlegituz  
berez, ugaritu ten  
euskai atxurlariak.

Bakez izan ba'giña  
guda-soiñu bagarik  
gure ibarretan,  
gure olerkariak  
entzutetsu izanen  
mendi geienetan.

«LAUAXETA», argi bizi,  
Laukinizko mendia  
zure jaiotz kabi;  
aritz ta garo arte  
artu zendun giroa,  
bizitz-arnas garbi.

Jantzirik ederrena  
aukeratu zenduan  
zeure erriarentzat,  
euskera barriztua,  
errian indartua  
euskal semientzat.



## EUSKAL

Euskal-erriko tandan  
tora bat agertu zan  
olermen gartsuaz.  
Landa abestu eban  
urretxindor gisara  
erriko kutsuaz.

«LAUAXETA» izen-goiti  
erabiti zenduan,  
olerki kantari.  
jakitura ederra,  
norbere erri bizia  
jatzun su-janari.

Erriari abestu  
zeuntsan eder-miñean  
landa barrenetan.  
Erriak artu eutzun  
irakatsi barria  
maitasun garretan.

Euskal-izkuntza zarra  
ederrez jantzi zendun  
gure pozerako;  
poz aundiena izanen  
zure goramen eta  
euskal-errirako.

Maite zendun erria  
goratu zendun itzez,  
gogoz, maitasunez,  
ta zu iñork ez zaitu  
oroitu ta goratzen  
esker txar okerrez...!

## GURE

Gure mendietako  
bide zabal ta txidor  
antziña beteak.  
Goragarriak dira,  
zabalcz ta estuz  
gure erri bideak.

Asabak joan ziran  
zarraz eta jolasez  
bide orretatik.  
Berragaz bedeinka  
zituen, goi ta be,  
euskaldun guztitik.

Mendi egaletako  
gurdien bide zarrak,  
aldatz biurtuak,  
nekccn joan-etorritz  
maitagarriago ziran  
bide-bidetuak.

Ezteguko jaietan  
gurdiak irrintzika  
etxe-biziagaz;  
andra-gizon barriak  
amets aundi ederrez  
pozaren kilimaz.

Jendea bertsoetan  
ezteguko jai pozeza  
basoko bidetik.  
Antziñatiko oituraz  
ederretsi zituen  
oin giroz josirik.

## GERO

Gero ta gogorrago,  
gero ta zitaiago  
barru barruraino,  
edena sartu nai dau  
iñutsi minkor onek  
lur biotzeraino.

Zergaitik etsaigo ori  
bakean dagonarí,  
ama-lur onari?  
Zer txar egin dau berak  
baketan egoanak  
etxean maiteki?

Baiña indar ezkutuen  
gogorkeria ez da,  
iñoiaz, amaitzen.  
Gorrotoak ez dauka  
ez begi, ez biotzik,  
zoroak zorutzen.

Ametz gaizto baltzean  
griñak erreminduta  
esirik ez dauka;  
ugeiak ausi ditu,  
nora doan ez daki,  
konorta galduta.

Izadia míñezka,  
ibaiak baltziturik,..  
Aizea soñuz lez  
gorroto intzirietan  
seme ordeak dabiltz  
euskera il gura-ta.

# MEND I

Euskal mendien gaiñetik  
egaz egin al ba'negí,  
gogoz maitatuko neukez  
Euskal-erriko lau egi.

Euskai iur guztia dago  
bizi iorratzez beterik,  
arbasoen bizi zarrak  
geugaz kateia egiñik.

Esa ten direnak entzun,  
eta utsa, zulo irudira,  
asmetan dot inguruan  
amiltegira begira.

Ausardikeria dakust  
amets utsaien gisara,  
asarreak eraginda  
uts ta putz zoro erara.

Ta astoratza sartu da  
naigabezko barru ortan...  
mendiak ikaratuta  
agiri dira goietan.

Biziak ez dau errurik,  
cz gure euskai endakoak;  
Amaren garbitasuna  
ez daigun ii guk gaurkoak.

## ASABA

Asaba zarren iurrinak,  
garbiro, igon dau mendirantz,  
eurak ziran bezeiaxe  
sendo ta zindo aurrerantz.

Gizonaren bizitzea  
oso-osorik artu eben,  
euskal errian sortuta  
euskaidun bizi eitezen.

Gizona sortu ezkerro,  
beti-betirako zaia  
ikusi eben, argiro,  
amarenetik jaiota.

Amarenean geroztik  
bizi bear euskaldunak  
jakintza ta bizikera  
euskal erara landuak.

Begiz jo ditut gailurrak  
eta beiarritz artu dot  
deia; jo ta ke egiteko  
biotza gerturik daukot.

Mendiak negarrez dagoz...  
Asaba zarreen iegeak  
baztertu nairik dabiltzaz  
maitasun gabeko jendeak.

## BETI

Beti, erriaren senez  
biziak izan bear du;  
lagunaren jita, berez,  
ez da bakarreko ulu.

Gure izakera mamiñak,  
berez, diardusku izketan  
erriaren indar danak  
deika odolen garretan.

Bakarrean ez naz sortu,  
bakarrean ez naz bizi,  
gizartea dogu inguru  
gure izate emegarri.

Mendi gaiñean nagola  
gure erri au ikusten dot,  
bere izate berezkoa  
arrizko deia deritxot.

Berea dauko bizia,  
millak urteetan josia,  
beraren jakituria  
odol gorriaz bustia.

## BARRUAN

Erri barruan sartuta  
errira begira nago,  
nor ete dan euskalduna  
ezagutzen garbiago.

Euskalduna garbi dago  
nor dan nortasun bidean,  
bere bizikera dauko  
errí bakarra Iurrean.

Ez dator gizon naikeriz,  
ez jatorku gogorkeriz,  
iñork ez euskun goikeriz  
bizi au emon lur erriz.

Jakituriz, eskubidez,  
emon eta artu genduan  
bizia euskaldun bidez  
ilkorren baratz zartuan.

Erri beronen girora  
zabaldu zan bere lena,  
zelai ta errietara  
gu eroan gaituena.

## ARBASOEN

Euskaldun arbasoen  
erria nai ezta,  
beste motrofllokeri bat  
sortuten dabiltza;  
Jaungoiko bagerikan,  
jaubetza kenduta,  
ume zurtz-lur biurtu  
nai ieuke gurea.

Nun dira arbaso zarrak  
guraso maiteak...?  
nun dira jakitunak  
egi zaintzailleak...?  
nun, nun, gure gizonak  
biotzen jaubeak,,?  
nun dira odol zarrak  
gorritutakoak, .. ?

Ainbeste giza-semek  
onartu ebena,  
jakituriz egoan  
erroak egiña;  
egia, gogor tinkatu  
sustraiak lurrera,  
besoak alorrera,  
gogoa ortzera.



## MENDIAK

Mendiak arrituta,  
beian, dakustanaz,  
bizpairu lagun dira  
euskaldun izketaz;  
ortxe dabit oillarra  
gangor odolduaz  
erpeakaz erpeka  
zapalckerickaz.

Pozik dabil oillarra  
uste aundietan,  
erriaren Jaínkoa  
kentzeko asmotan;  
euskal-erea ez dau  
sentitzen barruan,  
biak batera ii nai dauz  
gure lur sainduan.

Alegiñez diardu  
indar guztiekaz,  
maite ez daben erria  
azkeneratuaz;  
oivak eta arrantzak  
miña luzatuaz,  
erria naskatu da  
astakeriekaz.

## DIRAUT

Mendi gaiñean diraut.  
Zenbat ta geiago  
begiratu berantza  
lurrak astiñago;  
baiña barruak diñost,  
otsoak otsoko,  
ez dabe zapalduko  
euskaldunen Jainko.

Ainbeste etsai jaikita,  
alkarren ondoren,  
antzekoak antzeko  
aurkitu laguntzen;  
nasteak, motroitloak  
erriak apurtzen  
aaletan jardun arren,  
egiak garaituren.

Zer uste dabe orrek..r  
Lurra dala Jainko?  
Aragi dala nausi  
arrika joteko?  
Zer uste gizon oiek...  
olan arrotzeko,  
eurak dirala jainko,  
eta auts biurtzeko?

## Z E R

Baiña kezken artean  
gizonak aurrera  
darrai bere bidetan,  
begituz iurrera.  
Lurra dakus zurbilik,  
arantzaz josia,  
ez dautso ikusten izten  
egiazko urtzia.

Barriz doa lurrera,  
norbera kezkatzen,  
illuna, gorrotoa  
agiriz nausitzen;  
ez dau ikusten Jainkorik,  
lapurra ugaritzen,  
toki baltz orretan ez  
dau iorratzik artzen.

Bere gogoa, gosez,  
or zear zorosko,  
zabar artean dabii  
lurrak usaíntzeko;  
lurrak iurra damotsa  
gogoa asetzeko,  
ortxe aurkitu nai dau  
jainkoa gizontxo.

## L U R

Lur!, zu al zara Jainko?  
Otz, baitz, ii eta illun  
zagoz Jaube izateko  
ta indar ai-orodun.  
Zuk ez dozu zuzentzen  
bizia gau t'egun,  
biraka zabiltz aidez,  
ez arin ez astun.

Agintzarik ez dozu  
agertu izadian,  
uroldeak itxasoz,  
lorak legorrear,  
tximist dardarak goian,  
iur-ikarak bean,  
indar minbera onek  
joten ari utsean.

Jainkoa ez da itsua  
ura dan antzera,  
iurra iegez jausteko  
iezaren antzera;  
arkaitzak ler austeko  
tximist indarrera,  
orbel iez erretako  
suaren garrera.

## GIZONA

Gizona artu al dozu  
zure jaungoikotzat !  
Ez zaitu ezagutzen  
zu bere semetzat...  
Ez zaitu onartuten  
bere erreñukotzat,  
zelan izan daiteke  
Jaungoiko zuretzat?

Gizona ilkorra da-ta,  
ez dau jaubetzarik,  
alper diruarena,  
ezta gizonenik;  
ez da Jainko izatea  
beretu leikenik;  
ez da ez iñortxo be,  
lapurketa barik.

Gizona Jaungoikoa...  
Au dok mordoilloa!  
Zenbat zoro ta ordi,  
gizon arroskoa!  
Zenbat lapur lurrean...  
orreek Jaungoikoa?  
burua berotuta  
gizontxo gaixoa !

## EGIZKO

Oi, gure Jaungoikoa!  
zenbat panpa biki  
dabil zure aurrean,  
ta umeak umeki;  
arrokeriz gizona  
puztu da nabarmenki,  
goiko indarrak artuta  
Jainko biur naiki.

Ta zu oster a ixiiik  
Jaungoikoa izaki,  
errukiz begiratzen  
errukarriari;  
egizko gizajoa  
zuretzat dirudi,  
narraska dabillanak  
buruge, ta anka bi.

Oi zelako aldea  
zu ta gizonean,  
ezer ez dana otska  
ta dana ixillean;  
epoak aundi-zale  
lurraren gaiñean,  
biziaren jaubetza  
eskura naiean.

## GAUR

Gaur, beraren berariz,  
mendi goiratu naz;  
<cesan, esan», dirautsat  
gizadiarí ítzaz,  
ajakituria bota  
zure argiagaz,  
indar oro zabaldu  
kemen biziagaz».

Goiak urdin dakustaz  
mendiak orlegi  
bizitza luzatuta  
lurrean agiri;  
guztioi gaidez nago,  
or ta an, zelan bizi,  
goi-goiak diño urdin  
ta beiak nabarki.

Biziaren sustraiak  
aidean dabiltzaz  
aize egari bezela  
egaka egatsaz;  
gogoz maite dot goia  
biotz gar utsagaz  
lur onek zoratzen nau  
eder indarragaz.

## MENDI

Mendi gaillurrean nago...  
Euskal-erria, so, ara!  
Erri bizia, osoro,  
dakust ezbaridiñetara.

Berez anaiak direnak,  
zergaitik dira biziko  
alkargandik banatuak,  
maitasuna txit ostiko?

Gure erriaren sen ona  
ikusi gura genduke  
pentsabidez argituta  
bera dan legez, ilteke.

Indartzeko jaio zan  
seme bakoitza lurrean,  
eta, an, madarikatuko  
besteak bizitz muiñean.

Bere arnasca dauka,  
odola gori, dardari,  
iñori ostu gabea  
iratzita biziari.



# ETXE

Etxe aundiak dakustaz,  
jakitunen mintegiak;  
argitasun dardaraz  
zabaiduteko begiak.

Erri-ikastoiak beterik  
aundi-txiki alkarrekin  
aurrera doazeiarik  
mundu jakituriakin.

Baiña kezka dabiltz noznai;  
zer nai ete gazte arek?...  
Bideak orren illunki  
ete dakusez ikasleak?

Zer darabilen or gaizki  
galdetu bear litzake,  
argiak gizadiari  
egin dagion mesede.

## LEIOEKAZ

Leioekaz baturiko  
etxe zabala agiri da,  
besteak baiño ixillago  
oriegiz inguratuta.

Guztiak dira txiroak,  
iangilie semetaikoak,  
gitxi dira ango mutiilak,  
bide ori gurakoak.

Ez ei doaz jakituriz  
diruak irabaztera,  
txirotasun buru zuriz  
erriak otseindutera.

Jaungoiko jakituria,  
artzen doaz mintegira  
Jaungoikoaren maitasuna  
argi eiteko urira.

## BIDE

Bide zabaiak nai ditu,  
gaur, karrazidun gizonak,  
bide-estuak ezin ditu  
artu ieun-zale dan soinak.

Asmo aundiak zarataz  
iengo txarkeri aui rean,  
nekeak artzeko ikaraz  
norbere sorbaida gaiñean.

Kurutzak ostera bear  
aundikeria iñauzteko,  
gizonak bizia iltzear  
besteai bizi emoteko.

Besteai eskatzen jakena,  
—bide egizkoa ori zan-  
gaiztakeri ukapena,  
danak obeto izan daitezcan.

## MENDITIK

Menditik begiraturik  
ezbardintasan aundiak  
izten nabe iotsaturik  
lodi eta argal guztiak.

Nork jarritako aldeak...?  
iñoia ez egokiak,  
Era guztietakoak,  
gizonari ezarriak.

Batzuk goitik berantza  
beste askoei begira  
jaun ta jabeak bezela  
zeiak asarrez guztira.

Munduko gortotoak jai;  
aitaren seme diranik  
iñundik ezin esaniei,  
aikar ikusi eziñik.

## MUNDUKO

Munduko zaldunkeriak  
norberarentzat nai ditu  
bizi gozoaren gunak,  
eta arantzak ukatu.

Nola-naikoak ez dira  
jaunen jauregi giroak,  
itxas aizez igortzita  
arlandu arrez eioak.

Pentsabideak urretan,  
munduko gozamenagaz  
aikartuta ebiltzezan  
lurragaz bat egiñagaz.

Gogoia ezin asetu...  
Geroago eta utsago  
daukaz biotza ta buru:  
or zaldun orren zaldungo !

## ORI DA

Ori da ezer ez eza,  
aize ígesaren otsa  
barruaren egarria  
metalaren gau-il otza.

Gizona aundíegia da  
metal-txarrak asetzeko,  
lur ondasunen ugerra  
ez da iñogaz bardintzeko.

Ta beti, burrukan gogor  
inder bi cz-bardiñetan,  
nire egarriak astokor  
ta gogo deia miñetan.

Bizitza doakabea  
ondasun aundi artean,  
iñoz ezin argitua,  
guzurrezko gau-bidean.

## GAIÑIK GAIN

Gaiñik gain nabil oraindik,  
iñoz ezin asperturik;  
txoriak iges egazik  
zelairik zelai ibiirik.

Zelai tartean zut dago  
jolas giroen kabia;  
jokoen asmoak asmo  
an dabil dirukeria.

Gaur, suberte txarrak jota  
dirutza negargarriak  
joan dira esku-esku,  
lauak oartu bagiak.

Gaiduak galdu, lotara...  
Edanak edan, lorik ez...  
Goiza eldu da leiora...  
Gizonak lo, nasai, putzez...

## JOKOAGAZ

Jokoagaz erre ziran.  
Begiak iaiñoz itsutu,  
diru garra biotzean,  
odol gorri baltzitu.

Amets egin dau gabean  
diruen gora-berean,  
amets sorginkerietan  
lo egon dan bitartean.

Gabaz bildurtu egin da  
iapurren deadarrekaz,  
bide zear etsai zarra  
etorkion zigorragaz.

Poz gabeko goizaldiak,  
arratsaidez zaurituak;  
bizitza eskubideak  
zapaldu diru ugertuak.



## GOI ALDEAN

Mendi goi aldean darrait  
gizartea ikusi nairik,  
komentuak diño zerbait  
bizira begiraturik.

Jolas-garrak zelaietan  
komentuak aldatzean,  
bizitza ez-bardiñetan  
dabil jendea lurrean.

An bean dabil jendea  
jolas eta edanetan,  
egunak egun, denporea  
emon gura dabenetan.

Ango ondasun eralgetak,  
sarri arrokerizkuak,  
axukatu dauz erriak  
neke-miñak zapalduak.

Zer pentsabide ete dabe  
jotaseko mutil xeak?,  
beartsurik ezin maite  
aberaskeri semeak.

## GOIKO

Goiko mendi egalean  
etxe zabala begira,  
argi leioak ormetan  
yagerkoz bizitz arira.

Ze asmo ete iurrean,  
ainbeste jende ixillcan  
bakezko urrats artean  
gizartearen aurrean?

Iidurazko bide iiiuna  
bakar dadean daroe,  
naikerien biotz garra  
borondatez esitu dabe.

Diruak ezin uiertu,  
joiasak ezin asmatu,  
munduak ezin nabaitu,  
arroak ezin onartu.

Ezkutapena dozu or  
giza-griñak ikusten ez  
dabena laiño baltzetan  
lur zorabiotasunez.

## MUNDUAN

Munduan ta mundutik ta  
sortu eben bizi-itdoa,  
anai eta Jainkoarentzat  
maitagarri izatekoa.

Jaungoikoak onartzen dau  
eremu-zalea dana,  
onaren billa urrindu,  
baztertu jakun gizona.

Munduak ezin dau aitu  
bakardadeko bizia;  
bera iegez bardin *ez* dau  
ikusten bakar-zatia.

Lanak ez dira bardiñak,  
ez buru iidurazkoak,  
naiago dauz mundukoak  
gizarte bizitzakoak.

Ezin dau ikusi angorik,  
emen bai daukaz begiak;  
emengo azkatasunik  
ez dau an bizi-iegiak.

## EREMU

Gizonak eremu artan  
ikusi egin bear du  
gizona Jaungoikoagan  
Aitak artuta maitetsu.

Eremutarrak erria  
gogoan izango dabe,  
Jaungoikoaren maitasuna  
lortuteko onen alde.

Iru-ertz agertzen dira  
Jaungoikoa, eremua  
eta erriko bizitza  
anaikidez aikartua.

Iru-ertzok irutan bat  
iñoz banatu eziñak,  
Jaungoikoa ta gizona  
beitez adiskide miñak.

Aita izanen ongilari,  
gizonen eskergarri,  
eremutarren eskari,  
bizitzarentzat eusgarri.

# AITA

Aita. Seme. Gogo. Jainko.  
Berez dira eginbako.  
Arrigarri guretzako  
iksui ez dogulako.

Aren izena arrigarri;  
Attsua bere izamenez,  
gizadia sortu eban  
bere betiko naimenez.

Gizadi errukarri:  
zer dok ire barru ortan...  
kezkaz inguru zapaltzen  
ainbeste anai miñetan?

Min baltz ori sartu jatak,  
ezpataz zulatzen soiña  
ta barrurago gogoa,  
gizontasunaren muiña.

Gizadia eske jagok  
seme onen gogoari,  
zintzotasun geiagogaz  
laguntzeko gizonari.

## AURRERAPIDEEN

Aurrerapideen zeregiñak  
astun datoz lur gaiñera,  
trumoi dardaraz edatzen doaz  
lurraren egal guztira;  
gizonak, berberak, sortu ditu  
bere almenen neurrira,  
gu zapaldu nairik jatorkuzan  
indar barrien diztira.

Gizadiaren bizia goitu  
nai leuke ario barriak,  
bideak, estuak, jarten doaz,  
burdiz ibili eziñak;  
aizeak erreta ugerturik,  
bizi-gaitzez jota uriak,  
gaurko aurrerapide izenean  
arnasa bilia jendeak.

Jendea otska ari da, arduraz, arin,  
gaurko era aidatze ontan,  
oro barriztuten ikusirik  
gure bizitza latzetan.  
Gizona, bizkortzen zatoz, garaiz,  
zure erruz ii ez gaitezan,  
izadia menpetu ezinik  
barri saltza bideetan.

## I ZADI

Izadi nekegarri,  
zer dok iregan,  
ezpaiezko bizitzan  
gaiztoak sorturiko  
lorretan?

Iñoiz ez jok ikusi  
gizadi zarrak  
gaur aiña ondasun poz  
eta ainbeste erreztasun  
gizonak.

Gizonak ez jok asmau,  
iñoiz, beragan  
gaurko askatasunik  
ots eta ots edonundik  
zuzen tzan.

Zergaitik ete dituk,  
jendea gosez  
egotea lurrean,,  
jendea iltea utsaren  
naigabez?

Gizon askatasuna  
lotzen datozkik  
gizarteko joerak,  
gizona katei barriz  
loturik.

Alkartasun ondoren  
doa gizona  
eta aikarren arteko  
joputzak ilten joek  
gogo ona.

## ERRI

Erri jende zintzoak  
gudarik ez nai,  
Odola mingarri dau  
apalki bizi danak,  
sastrakai.

Nork dauka bide ori  
aintzagarritzat?  
Nork ditxaro bizia  
zama astunen artean  
beretzat?

Odoiaren ajena  
nork maite daike...?  
eriotz gogorrenaz  
anaia ilten dalarik,  
min-neke.

Nortzuk poztu daitekez  
iñoren iltez?  
Nun dira biotz anker  
gogordunak munduan  
makillez?

Zer ditxaro gizonak  
guda miñetik?  
Beste iñoren odolez  
ioditu nai ete dau  
goserik?



## SALTOKA

Saltoka doa aidatzen  
ludiko bizia,  
ta gizonak ez daki  
zeren billa dabillen  
anaia.

Ikareak darabii,  
batzuetan, dardar;  
ikusi ezin ditun  
bideak daragitso  
deadar.

Illun goi-be aldetik,  
aurrea illuntzar,  
biderik ez ikusten  
iañuak urratzcan.  
Mundu zar!

Aurrera egin bear  
giza-bideetan,  
adimenak indarka  
dagoz gizonen aide,  
egitan.

Burruka ortan bizi  
da gizadia,  
ienak oraiña dakar,  
ondoren ezbarðiña,  
barria.

## TEKNIKA

Teknika indarra aurrera  
doa bizirik  
burdin zarrak atontzen,  
guztia menperatzen  
goi-goitik.

Lurrak tajutuz doaz  
adimeneraz,  
ta goiak zear dabil  
ango legeak goituz  
argiaz.

Aldia menperatzen  
doa gizona,  
lurra istori ikasiaz,  
geroa asmo barrikaz,  
iei ona.

Gogoz ikasi bidez  
gizarte auzi  
arloko jakituriz  
gizadi goitzen doa  
nagusi.

Baiña norbera da?  
or dago koska:  
ezautzen gaiztoena,  
zuzentzen gogorrena,  
biotzka.

## E R A

Era ezbarðiñetan  
erritik doaz  
urriñera gizonak;  
zerbaiten billa, estu,  
dabiltzaz.

Ezagutzen. Ikasten.  
Motxaillaki.  
GaIuts, biderik bide.  
Itxasoak zearka  
maiteki.

Ertilari bidetan  
gogai asmetan,  
gogoak zabalketan  
arnas barrien billa  
ertitan.

Diruak eraigiten,  
ien pillatuak;  
bazterrak lotsatuten  
diruaren ixurtzaz  
galduak.

jakitunak ba-doaz  
urriñetara,  
buru-bidez atxurtuz  
lorratz zurrak jakitun  
erara.

## BIDERIK

Biderik bide doaz,  
bai, beartsuak,  
bidazti nektsuak,  
biotzak urratuta  
gaisuak.

Gosea asmetan dabe.  
Erantzupena;  
sendiaren guraso  
ta jatekorik eza,  
urrena.

Urten egin bear ii  
baiño len. Nora?  
Lur ez-ezagunera  
ogia irabaztera,  
mundura.

Biderik bide dabil  
jendea. Negar!  
Bizi naiaren jarrai  
maite kabia itzita.  
Zoritxar!

Zenbat bidar gaisuak  
bideak zear  
joan-etorrietan  
zugatzaren ondoan  
iitzear.

## EUSKALDUNENAK

Euskaldunak ez dira  
egon bakean  
bizi arazoetan,  
burua amets garrez zan  
artean.

Euskaierriko lurra  
gitxi etsirik,  
menturazko bideak  
arturik doaz asko  
etxetik.

An, urrin, gogoratzen  
zan erriagaz,  
mindurik. Mendi, zelai  
ta erri osoaren  
giroaz,

Zergaitik itzi neban?  
zerk mindu nindun?  
Zugandik aldetako,  
zu lakorik ez ba'da,  
ez iñun?

Begiak galdu eusten  
orko orlegia,  
txikia ba'ziñan be  
lurrez, nork ager zure  
bizia?

## ANTSIZ

Antsiz nago egunez,  
gogoz, odolez,  
zuregana begira;  
zu, urrin, urdin artean  
ama iez.

Ni ordutik onakoan,  
zenbat bidarrez  
neure erria oroiturik  
biotza daukat urtzen  
negarrez.

Amaren maitasuna  
ezin dot aantzi,  
berez naukazu deika,  
semea ikusi nairik,  
ez etsi.

Zure deadar ori  
egun sentian  
asmetan dot biziki;  
zu eguzki artean,  
ni itunki.

Milla bidar datorkit,  
egun osoan,  
amagandik artuta  
daukadan maite miña  
koikoan.

## A N

An, urrin, nire erria,  
berak bear lez  
maitatu ez nebana,  
beti, amaren gisa  
deituez.

Gizadia arat onat,  
ni legez dabii;  
batzuetan lan bilia,  
baita motxaiilekeriz,  
biribii.

Batzuk negar egiten  
lanik ezagaz;  
lurrak iger ziran da,  
jaun aren eskuetan  
makillez.

Biziaren garratza  
xurga bearrez  
odolustu baiño len,  
urriñeko mendietan  
artzain lez.

Neke ta min guztiak  
ez dira iñoren  
erru. Neurez onatu  
nintzan. Suberte au dot  
ondoren.

## NORBEREKERIA

Norberekeria izan da,  
ondorengo arrokeriz,  
pekatu egin dabena  
iotsagarritzko goikeriz.

Baiña astintze barría  
ikaragarria dator,  
gizarteko bizi oro  
bizkortuten ikarakor.

Ez da geratuko ertzik,  
ezta giza muctarik  
oiñestarrizko dardarak,  
gaur, ikutu gabekorik.

Norberekeri doillorra,  
gizartearen saskara,  
iñork atxiotu gabe  
oiñarte bizi izan zara.

Maitzurkeria izkillutzat  
erabiii dozu, sarri,  
zure burua zafintzeko  
azeri zarren iduri.



## MUNDUKO

Munduko barrizailleak  
lur mamiña dakuse eder;  
emengo jakituria  
naiko ba'itiz lez. Gero iitzer.

Pisia ta kimiagaz  
gizarte jakituriak.  
Gizaizti ta zenbakizti  
alkartzen ditu bi-biak.

Gizonen adímenagaz,  
uts-utsetan, bakarrikan,  
artcztu nai dau bizia,  
iñork ezin dabenetan.

Bi eta bi iau bezela  
ezin daitekez negurtu  
gizonen eginbearrak  
t'eskubideak zuzendu.

Beste jakituri bat da,  
E<sup>g</sup>iileak damoskuna  
txakurkerfen buruei  
adarrak austeko dana.

# ASTINKETA

Astinketa aundi onetan  
burruka barria dator,  
iodiak nai ez dabena  
argalenzako baiezkor.

Ta gaztedia armin dabii,  
odolak zirikatuta,  
dana apurtu bearrean  
bizi-barritzea nai-ta.

Ainbesteko ondamendia  
millak urteren burutan,r.  
zenbat gose, zenbat ilte,  
guzur aundikerietan.

Ta geienez jente zeia,  
bizitza errazoiduna,  
ori da gaiztakcriaz  
indarrak iiten dabena.

Egiak ez dira, ondo,  
gizadian onartuten,  
au da petralkeri zarra  
giza-bizitz ondatuten.

## OLAKO

Olako pentsabiderik  
ez dau nai zuzenzaleak,  
zapalketa orde z dauz  
zuzentasunaren keak.

Gizadiak Iendik ditun  
naikerizko iegediak,  
ez dira, gaur, gizonentzat  
zuzenbidezko egiak.

Ez gorputz, ez gogoari,  
ez datorkioz iegeko  
pentsakera sartu orrek  
gaurko bizibiderako.

Geroz, ortik sortzen dira  
iege barrien bearrak,  
ta or, alkartu eziñak  
bizi bitzuon zusterak.

Zergaitik izan ete zan,  
eta zergaitik ete da  
gizona ain norberekoia,  
guzurra beraz dabela.

## TA AINBESTE

Ta ainbeste gaiztakerizko  
gogo maltzur gaiztoenak  
erre dautsez gizonari  
barruko gauz sainduenak.

Bizitza baldintz barriak  
sortu dira giro onetan,  
eta dardar daragie  
buru biotzen muiñetan.

Lengo eratan ezin da  
kokoio gisan oldoztu,  
zustrai gabeko jokerak  
ezin iñolaz maitatu.

Eretxi barri gogoa  
egiz zorroztu egin da,  
munduatzazko ustea  
garbiago bear da-ta.

Gizonaren zuurtasuna  
ta norberaren gogua  
eriejiñoarentzako  
izan bediz gar ta sua.

## ISKANBILLA

Iskanbilla illun onetan  
Jainkotiar izatea  
zail biurtu da munduan:  
egia ez da erreza.

Gizon ta Jaungoiko  
ar-emanak, zelan doaz?  
Gizonak ukatzea nai  
dau Jainkoa, zoritxarrez?

Dirua ta aundikeria  
maite dituanak ez dau  
nai Jaungoikoagaz ezer:  
Jesukristo'k esan au.

Beartsu ta langilleak  
asarre jarten doazi.  
Zer arduragabekerik  
zaitue ortarazi?

Norbere txarkeri zarrak,  
erantzupendunen loak,  
bildurrak, makalkeriak  
dira onbide etsaiak.

Goikeriak indarra dau  
besteak gogor zapaltzen  
munduko arazoetan,  
beti, gizonak ondatzen.

## BAKOITZA

Bakoitza, egitan, gara  
geure erantzupendun,  
norbera giñan nagusi  
ezer iortu nai ba'gendun.

Baiña gizartea era  
askotara eratu zan,  
txiki, aundi, zuzendariz,  
izateak diñon eran.

Baiña emen dago koska;  
txikia gora adi dago,  
menpekoa goikoari,  
berezkoa dan ezker.

Giza bizitzaren muiña  
dindilizka aidean dago,  
ikrtenkeriak ugari  
ona baiño sarriago.

Beartsuak ez dau ikusi  
zuzendaria beragaz,  
bear neke aidietan  
argi egiten egiagaz.

## PENTSABIDEAK

Pentsabideak ez-bardin.  
Nai izateak ez-bardiñak.  
Egiñak dabiltz burrukan  
gaiztakeriaz arraiñak.

Indartsuak indarrean  
dauka bere sinismena;  
goiak gogor maite ditu,  
au da bere zoramena.

Gorago ez ei da ikusten  
bere Jaube danik iñor,  
ondasunak ditu seme,  
bera jorralari dator.

Jaungoikorik ez dau gura  
zuzentza eskatzaillerik,  
lurreko gora-berakaz  
ez ei dau zer ikusirik.

Jaungoikoa dirua dau  
gur-baltza eskeinduteko,  
bere diruagaz dabil  
grña baitzak asetzeko.

## GAUR

Gaur, gizarte arazoak  
alderdi guztietatik  
nastau dira goi ta betik  
norberekeria-gaitik.

Maitasun billa dabilnaz  
asko maitekerietan,  
zuzentasunaren billa  
zuzengabekerietan.

Gizonak berak sortzen dauz  
gose, ilte ta ostikoak,  
gizarte bizi orretan  
onartu ezindakoak.

Giro triskii trauskíietan  
gizontasuna gaitzean,  
sinismena, bertan bera,  
izten dau guzurpean.

Gizadiak ez dau gura  
betiko erantzupenik;  
txiki ta biidur datako  
ez dau nai jaungoiko izenik.



## DIRUDUNAK

Dirudunak dirua dau  
bere jaungoiko izuna,  
urre artean amestu  
bere zoriontasuna.

Dirukriak damotsa  
ondasunen egarria;  
aberaskerien jopu  
biurtu jako bizia.

Nagusi-jaun ez-bardin bi  
biotzak era berean  
ezin Leitekez maitatu  
bere Iotsakizunean.

Azalkeria dauka ba  
erberentzi izunagaz,  
munduari ederkeri  
egiteko usteagaz.

Zurkerietan ibiii,  
atzipetutea lortu,  
jainko diruak lurrian  
zeregiñak emoten ditu.

## ONDASUN

Ondasun ugaridunak  
ez dau asmetan barnean  
Jaungoiko bear izanik,  
asez dabillen arrear.

Lur ondasunen arrear  
Jainkorik ez dau nai ikusi,  
ez dau nai argitzerik,  
bera izan al dedin nausi.

Arro, «gu gara erria»  
diñoen jende zeï zeïak  
Jaungoikoa ukatzen doaz  
ausardikeriz betiak

Aurrerapide izenean  
norbere aundi-ustean,  
bizi-jaube dalakoan  
ta goiak artu naiean.

Jaungoikoa ukatzen doa,  
Aitak maite eban erria,  
nundik nora ete doa  
itxurik galduz bizia.

## ERRI

Erri langillea ernai;  
zure izerdiak ez dira,  
ez uts ez alperrikoak  
geroetara begira.

Maiteen zaitun Egiilea  
begira ari da biotzez;  
iñoz ezin aztu zugaz  
maitasun zintzo garrez.

Zure aurrerapena nai...  
Zure bizia goratu...  
Zure nekeak arindu.,.  
Zure etorpidea askatu...,

Sarninduak ditu lagun,  
nekepetuak aiskide.  
Zapalduak askegarri,  
gaisoak osasunkide.

Kristo Jauna ez bardindu  
guzurrezko diruagaz,  
ez jaun aundikeriagaz,  
zeugaz, bai, beargiñagaz.

# ALDI

Aldi barri etorkeran,  
ez jakiñaren garretan  
sartzen da gizabidea  
illuntasun baltzenetan.

Lengoak eta oingoak  
ez darabiltz Ici bardiñak,  
lengo buru ta biotzak  
ez zirean ain ariñak.

Gogo ariñak gaurkoak,  
Icngoiz gaiñezka betiak,  
atzerakoiz aspertuak,  
zerbaiten amcslaríak.

Asi, ekin ta jarrai,  
illunetan sartu dira,  
bideak urratu bear  
ta danak jausi sasira.

Gazteak odola bero,  
zarrak odolak illotzík,  
guraso semeen artean  
burruka dabil gogotik.

## GIZARTEA

Gizartea, len, io egon,  
uxencntzat pozgarria,  
buruko-min gitxiago,  
xurgatuz odol gorria.

Gizadia lotsatu zan  
jopukeri ain balzagaz,  
giza-bizikera etzan  
goiak eukana beragaz.

Erri-arteko aldeak,  
aundiak txikia iruntsi,  
arrokeriz ta aundikeriz  
txikiak negarrez bizi.

Laterri aundi artean  
banakuntz gogorak dagoz,  
indar ta diruak dabiltz  
besteak goitzeko asmoz.

Buruko argibideak,  
iñun, ezin dau argitu;  
noz arte txarkeri orrek  
bearko ete agindu?

## INDARDUNEN

Indardunen apokriz  
illuna ta banaketa  
zabaltzen dira gizadian,  
betiko nor geiagoketa.

Gizadiaren gain dator  
madarikatze sator ori,  
errugabeko jendea  
gudaz iltera ekarri.

Arro nausi puzkeria,  
gaiztoen maltzurkeria,  
indar norberekeria,  
gose arlotekeria.

Noiz arte ibiliko zaree  
inguruak astinduten,  
egi-argia illunduta  
gizadia lorrinduten?

Gaitz maltzurrcen nabarmenez  
gizaldi atzerapenez  
bizi gara zoritxarrez  
lurreko gaikeri indarrez.

## BURRUKA

Burruka naste orretan  
gizonak eta erriak,  
bizi-miñak eraginda,  
artuten bide barriak.

Ezeren eskurik gabe  
ezin lei izan argiduna,  
argiak berak damotsa  
egizko ezagumena.

Lurra eta jazoerak  
menperatu bear ditu,  
bizitzaren gaiztasuna  
beren erara gírotu.

Erriketaren giroak,  
diru tzaren gora-berak,  
gizai te auzi-mauziak  
daukez konpondu bearrak.

Ez dau atzeratu bear...  
gizon bakar nai taideak,  
norbere ona zaintzeko  
ar zitun eskubideak.

## GIZ-EGINBEARRAK

Giz-eginbearrak dira  
ta origaitik diardu  
otska gizadi barruan,  
egia ez dedin gaidu.

Gizonak, argi, ikusi dau.  
Zuzengabekeria da,  
ezbardintasunen arra  
berek ta bi eginda.

Gizadiko iaterriak,  
oraintsu, sortu barriak,  
munduan toki bat nai  
dabe euren eskubidiak.

Lengo iaterriak iegez  
gaurko bizia nai dabe  
jakitura, ogia,  
eta aurrerapidea be.

Baiña, zoritxarrez, alde  
aundiak banatzen ditu  
erri aberatsetatik.  
Noz arte ain atzeratu?



## GIZONAREN

Gizonen eskabidea  
sortzetik dator ixiiiik,  
barruko indarrez beteta  
odol bcrotasunetik.

Lagunak gizon izan nai ;  
artu ditun almenakaz  
beregán daroa azia  
eskubide osoagaz.

Beargiñak nai iugiñak  
dei egiten dabe gogoz  
egoki dana eskatzen  
fameiaren aidekoz.

Ogia ez dau, bakarrik,  
nai egiz giza-semeak,  
buruko argi aimcnak  
nai ditu argiz aseak.

Gizon izan gura dabe  
langille ta zuzendari  
iantegiko arioetan  
ugazabakin gidari.

## MUNDU

Mundu zar ontako gaitza  
irabioan, mattzurki,  
dabil bere naietara  
argitu eziñik, zinki.

Gizadia zatituta  
dago gizonen artean,  
gora-bera aundiak ditu,  
beren illunpe nastean.

Jakitunak, ez-jakiñak,  
aberatsak, beartsuak,  
aundizkiak, menpekoak  
gizadi baten urtuak.

Ez-bardintasun aundia,  
zer esan gura daukuzu?  
Zer dago zure barnean  
gizonik ez ba'daukazu?

Nork sortu dau atde ori?  
Goi-be zalea nundik da?  
Nun da turraren jaubea  
ixil ixilik ostenduta?

## EGOERA

Egoera ítzaltsu ornan  
min dauka, gosez, urdaillak.  
Min buru argizaleak,  
min giza-gorputz erdi-illak.

Buru-rnin aundia dago  
gizon nekatu artetan,  
barrenean deadarka  
ots dagio irakiñetan.

Samínduaren deia da.  
Gosearen dei-oiva.  
Zapalduaren arena.  
II-aurreko alaraua.

Ezbear onen artean  
gizonak bizi nai du ;  
osoa ta egokia,  
gizona nai dau aipatu.

Azke gura leuke ikusi,  
argiz jaio dan semea,  
argi egin ta azkatzeko  
gizadiaren bidea.

## LURRAK

Lurrak ondasunak ditu  
oraindik negurtu barik,  
zer ta norentzako dira  
ez bah ba'da azkatasunik?

Mundua indartsu dirudi,  
adimenez, ondasunez;  
gizonak ba-dau argia  
bizia argitzeko bidez.

Lurrak ba-ditu barruan  
aurkitu atako onurak  
gu bizi al izateko  
bizi Jaubeak emonak.

Baiña indartsu ta indargea  
bardin ez dira agertutzen;  
eskuarteko ondasunak  
ez daki ondo banatzen.

Biotz maltzurak ez izten,  
beretzat nai dau guztia.  
Ain txikia ta ain argala,  
aundiki zalea dana!

## NAST EAK

Nasteak ta tenik ezak  
gaurko gizadi oneri  
iguin eragiten dautso;  
ainbeste zabarkeri...

Agiriko naste orrek,  
biotza ustei ez-paiego,  
ain mingarri ez litzakez  
gizadiarentzat izango.

Gizonak bide bi ditu  
gizadi arazoetan,  
azkatasuna batetik  
eta joputza bestetan.

Joputza ez da iñorentzat,  
adimena ta biotza  
azkatasun deika dagoz,  
betiko zori esketza.

Eta gizonak ba-daki  
bere eskuan dagoala  
gizon zintzotasuna  
zeregiñak bereala.

## BIZITZ

Bizitz ez-bardinkeriak,  
gizonen iotsakizuna,  
ain indartsu agiri da,  
beti, zapattzen gizona.

Burua eta biotza  
ar gorriak jota dagoz:  
ezin ikusirik iliun,  
ezin maitaturik gorrotoz.

Arrokeriaz gizona  
ezin da inñundik gelditu,  
zorabioak jo dautsa  
kirtenkeri zarra indartsu.

Burruka dauka barruan,  
kanpuan dagoan egi  
ta barru ziztrinkerian  
ona ezin erabagi.

Gizonak txikikeria  
edonundik dau ikusten,  
baiña bere gogoetan  
bizi ohea irrikatzen.

## ZENBAIT LUR GAIKERIARI

Zenbait lur gaikeriari  
ezarrita diralarik,  
iñola ez dabe gura  
egi zustrai ikusterik.

Oian azkeago egon  
nai ieuke azkekeritan,  
erantzupen garraziak  
ikutzeke barruetan.

Gizon erara bakarrik  
gizadi au azkatzea  
nai dabenak lur onetan  
dagie lerro betea.

Baiña gizonen almenak  
oso murriak ez ete?  
Gizonen gaiztakeriak  
ezer egin ete leike?

Onak sortu bear ona,  
aian diño argi onak;  
gizona zeian gaizkatu  
gizonen gorroto zarrak?

## GAURKO

Gaurko mundu onetan be,  
ainbeste zarpilkeritan,  
gizon asko ta asko dira  
ardura onen bidetan.

Gizona zer da gizadian?  
Norbera norberarentzat  
aundia da gizartean,  
ta ni zer naz bestientzat?

Miñak zer esan nai dausku  
gizonaren odoietan,  
berez, nai besteren batek  
emonda jatorkunean?

Zer ete da neke indarra?  
Zer da gaitzaren samiña?  
Zer neke ta arantzetatik  
datorkigun gorputz-miña?

Zer da iñork nai ez dauana,  
Utsik gabe datorrena?  
Zer da bere itzaltasuna,  
gizon askoren jarduna?



## AINBESTE

Ainbeste aurrerapen da  
*gure* gizarte bidetan,  
negarra ta zapaltzea  
dabiltz erio odoletan.

Eriotzak zalantzarik  
ez dau gazte ta zarretan;  
ixilik, baiña, indartsu, nor  
zara zu erri bidetan?

jakituriak ez zaitu íl,  
eriotz bildurgarria.  
Gaur arte Kristo'k, bakarrik,  
goitu dau zure il barria.

Aurrerapenak ez zaitu  
lotu lurreko bidetan,  
gaur artzaiñakaz da agertu  
indartsurik gizonetan.

Zuk daroazu, gizona,  
zure bizi ta naiagaz,  
zer dagon ta zer ez dagon  
ondorengo galderagaz.

Gizona gaidezka ari da,  
zer balio ete daben  
lortuten diran onurak  
ainbeste nekeen ondoren.

Egiz datorkit burura,  
munduan zergaitik artu  
bear dan ainbeste neke  
ezer bear ba'da lortu.

Ezer ez dan gizonari,  
nungo jaubek emon dautso  
eskubidea, bizia  
iñori kentzeko. OTSO.

Nork kendu leike bizia?  
Nork zapaldu lei erria?  
Nork beztu askatasuna?  
Nork iraindu entzutia?

Txarkcria guzti orrek  
egiten dira iudian,  
eskubide bape barik  
gizadi oso aurrian.

Gizon zurrak, gaur egunez,  
jakiturian darabil  
gizon eriotz ziurra  
Jaunagan dagoia zintzii.

Zer zara, eriotzori?  
Iñork ez zaitu maitatzen.  
Zer czpata dozu zukan...  
gizadi ona bildurtzen?

Biziaren mugea naz,  
iñor ez dot ikaratzen,  
sinistuten dabenezat  
bizia daukat loratzen.

Gizon zurrak lagun ditut;  
geroko pentsabideaz  
oraingo bizitza ornan  
ona egiten dabiltzaz.

Bildurra guztiak dauste,  
baiña, adi, giz-anaiak,  
zuen eginen saria  
betiko zori dirdaiak,

Gizonak zer emon leio  
inguru gizadiari?,  
negarrez dagon lur oni,  
zuk niri ta nik zuri?

Gizon jakintsu nausia,  
gizon zintzo beargiña,  
gizon leial ziñestuna  
billa dabil erantzuna.

Giza- seme batzuk, soillik,  
aurrerapidea emon  
nai dautse gizadiari;  
besteak, barriz, or konpon!

Lur giroa dakusenak  
lur onurea damotse,  
gaurko bizia indartzeko  
legezko dan bezelaxe.

Giz-sinisleak geiago  
gaur ta geroa ikusirik,  
gizonen ardura biak  
nai leukez itzi beterik.

## IL OSTEAN ZER?

II ostean zer? Zer dago?  
Ezer eza ala geroa?  
Utsa ala aiatan bízía,  
zer nai dozu egotea?

Gizonak ez dau nai ilterik.  
Berezko da biziaren  
earri illezkorra gugan;  
beti, beti, jarraien.

Miñak ukatzen ba'dau, zer?  
Naiak eskatzen ba'dau, zer?  
Egokiago zein ete  
bizi ata *geratu iltzer?*

Gizonaren esakerak  
nun dabe sort-iturria?  
egi ala griñartean,  
zein da bear dan bidia?

Illak biztu ebazanak  
geroatzaz esan dausku:  
«illak berbiztuko dira,  
danentzat da bizi-leku».

## EDOZEIN

Edozein gizonek argi  
daku lurreko ondasunak,  
urre, zidar, bearrezko  
diran aberastasunak.

Oro dira gizonentzat,  
guztien esana dan lez,  
gizonak dau eskubide  
lurra goitzeko lan bidez.

Lenbizi gogo emonik  
ekin ta ekin lanari,  
ogia sortuerazi  
zapaltzen dogun lurrari.

Oiu bardiñak ez dira  
gizonetatik urtenak,  
nortzuk dabiltz egiagaz,  
nortzuk botatzen guzurak.

Norkeridunak beretzat  
nai leukez ugarienak;  
ianderrak ostera diño,  
danak dira guztienak.

## NOR ZARA ZU?

Gizona, nor zara zu, nor?  
Zer diñozu zuretzaz, zer?  
Gizona ezkutua da.  
Besterik ez, ez, ezer.

Gizonak beretzaz esan  
dituen gauzak, ez dira  
bardiñak, ez eta ere,  
beti, ziurrak argíra.

Aundizkiak bere erara.  
Alperrak bere gisara.  
Zintzoak al-dabenera.  
Beargiñak beretara.

Lurreko indartsuak ez  
dau nai Jaungoikorik izan  
dedin, emengo arazoz  
kezkatzen dan lez lurrean.

Ori da pentsabidea.  
Ori da on maitasuna.  
Ori da etorkizuna  
eurentzat nai leukiena.

## TA, ZU?

Ta zu, lengo baterarte  
sinistedun izan ziñan,  
zuretzat zer da bizia  
eta iurreko gizona?

—Ni amorratuta nago,  
giza senetik unen dot;  
kateiak apurtu ditut,  
orain ezer ez ditxarot.

Niretzat ez dago ezer,..  
Zarata egiten nabii,  
nabillan toki aldeetan  
erostan zirpil zarpil.

Ez dakit norantza noan,  
ezin dot ezer ikusi.  
Poltzan ez daukat dirurik,  
baiña maite dot Wiski.

Nire antzera dabiltzaz  
beste konpontzailie batzu,  
bai, ar-emekerietan  
bata besteaz indartsu.



## KITTARRA

Kittarra jotzailte ekitx...  
Zuk zer abestuten dozu?  
—Gorrotoz beterik nago  
barruraino zital ta su.

Ezin dot ikusi jaunik,  
nai ta ni markeski bizi,  
beste gizon dirudunak,  
ez, ezin ditut ez iruntsi.

Gorrotoa sortu jatan...  
Barru gorrotoz bizi naz,  
beazuna mingostuta  
daukat kiput erreagaz.

Ermitarik ermita nabil,  
sinistunak arrapetan,  
n k ez daukat sinismenik,  
ainbat jausten nire erpetan.

Gazteak parre ta txalo;  
na<sup>e</sup> usiak irri-parrez,  
pozik dabittz n re inguru,  
neuk danak atzipetuez.

## AU DOK AU

Au dok au nire eztegua,  
iñoz bear egin barik  
baserriko lurraldeetan,  
txaloka niri osorik.

Iñoz ez dot lanik egin  
lantegiko burdiñetan,  
ango nekien maskurrik  
ez daukat nik eskuetan.

Ni naz ekitx kittarreru,  
sua, garra, sua, kea,  
eske nabil ari t'oni  
ta pozik daukat jendea.

Aberats aundi bezela  
bizi naz gurasoekin,  
areen nekez baliatuz,  
sarri, ez konporme eurekin.

Nire eredua ori da  
neskatxakin Wiskietan  
cmonik denporea  
al dodanik geienetan.

## N I

Ni kittarreru nausi naz,  
ni ez nabil asmoetan  
beste askoren antzera  
ermitako zeiaietan.

Abadeak ez dabena  
dot kittarraren soketan,  
dardarea iagunentzat  
mozkortzea iortuketan.

Zuzentasun itza ez dot  
erabiiten jende aurrean,  
egur otsaz zoratuten  
ditut biotz barrenean.

Egirik ez dot aitatzen  
griñak zirikatu baiño,  
ori da bide egokia  
azken eibururagiño.

«Erre!, birrindu ! . dirautset,  
ta nagusi ta gazteak  
txaioka goratzen nabe,  
putzak putz, danok puztuak.

## ZUZENTASUN

Zuzentasun itz ederra! !  
Zuurtasun jokabideak  
kittarreru onentzako  
aski dagoz, bai, legeak.

Irautzakeri onetan  
ez dogu zuzenbiderik,  
itz utsak eta mítoak  
zabaltzen doguzalarik.

Irautzero, kittarrero,  
nik darabilt eztegua,  
jendeari biotzean  
sartzen nabil gorrotua.

Ta jendeak lengoz, ziur,  
aspertuta dagozanez,  
edonora doa pillo;  
guzurren berotasunez.

«Sua!, erre ! », esaten nabil.  
Egizko kirtenkeria!,  
txaloz jabiikit ondoren  
euskaierriko jentia.

## EGI ORDEZ

Egi ordez artu ditut  
guzurra eta nastea  
ta itxaso nastatu ontan  
astar bera da nausia.

Arrantza ta arrantza nabil  
kittarrez eta min luzez...,  
zelako astakeriak  
entzuten dituen pozez.

Guzurra naiago dabe  
egia bera entzun baiño,  
lengo guzurrak ta griñak  
luzatu dira gaurdaiño.

Gizonetik gizonera  
ez dago alde aundirik,  
jaungoiko bako gizonak  
ba-da an, berez, zapaltzerik.

Ez dau gura iñork iñundik  
ezertan aginduterik,  
norbera dauka naikotzat  
ondatzaillea dalarik.

## NIRE

Nire asmoa ez da ba  
bakearen zaratea  
erriari emotea,  
ori ez da nire egitea.

Maitekeria batetik  
ta gorrotoa bestetik  
sortzen nire barrenean  
illun inpernueatik.

Gizonik ez dot maitatzen,  
goratasun billa nabil.  
Oorezko gar gorrietan,  
hai zorikí, eta ez

Alegin guztiak ketan  
egiten ditut : Jainkoa  
lur ontatik kendu nairik,  
ordez sartu gorrotoa.

Gizonen grña gaiztoak,  
berez, onartuten dabez,  
euren guzur jaungoikoak,  
pozik, maitatuten dabez.

## A I

Ai, kittarreru borrero!,  
zer dabilk Euskaierrian?  
Zenbat dituk ire egunak  
gure erriaren erdian?

Erri au euskalduna dok  
berez, zentzunduntasunez;  
euskaidunak gaituk geure  
barru erritartasunez.

Izkuntza, eta izakera,  
ta nortasun berezia  
ditu euskaldun erriak  
urteen buruz erantzia.

Erria geldika doa  
bere sena galdu barik,  
barruan daukan odolez  
mintzatzen biziz beterik.

Orra erri edestia,  
lurreko erri danena,  
curen izatetik artu  
bear dabe nortasuna.

## EUSKALDUN

Euskaidun erria ernai!!  
Zure barru garbiari  
begiraturik, ots!, dei egin  
euskai erritar danari.

Zure ondasunak asko  
dira, jakituriz, iurrez,  
erriz ta gizontasunez,  
jatorrizko giro berez.

Euskaierria zara zu.  
Zure semeak euskaldun  
gizaidien gizaidietan,  
semeak baita fededun.

Emengo gizonak, ziñez,  
bera ez daia jaubia  
gizonen biziarena  
ikusi dau alegia.

Ori ikusi daun gizona  
ez da guzurkcriarena,  
ez doa paitsokeritik  
ondatzen errien sena.



## B E

Kittarrerori be deitu  
beraren en aundirako,  
zu ezagutu al zaizan  
bere bizi guztirako.

Gizon bat nor da bakarrik,  
*erria* onartu barik  
jenteei otska ibilteko  
onen itza apurtu nairik?

Ez dabela sinistuten  
esaten dau agirian,  
ta sinisdunak ondatzen  
dabil ermita inguruan.

Ermitan ez dau sinisten  
ta ermita zelaira jun  
bear, Jaungoikoa kentzen  
gizonen barrutik urrun.

Norbere ooreagaitik  
egin bear dala diño,  
baña oorea izan daiteke  
arrokeria ilteraiño.

## J AIO

Kittarrero jaio orduko  
bizia ba-zan iurrean;  
Egillea nunbait ba-zan  
bizitzaren barrenean.

Gizon guztiak baiño len,  
Jakituria ereilie  
sortzen ta sortzen ebillan  
bizia Jainko Egilie.

Gizon guztia txiki da,  
bera baiño ien ba-zana,  
ain errezki ukatzeko,  
beti betikoa dana.

Jaungoikorik ez dot gura  
dirautsazu erriari;  
sinistun ezik, gizonak  
zergaitik zapaitzen ari?

Nundik dozu eskubide?  
Zer da ausardikuntza ori  
bere eskubidea ilteko  
zeu ez zaran gizonari?

## ZUZENTASUNA

Zuzentasuna nai dozu.  
Zuzentza nai dau erriak.  
Bide orretatik doaz  
zuurtasunaren gogaiak.

Baiña erretea, sua,  
nungo zuzentasunean  
sartzen ete dira, bidez,  
gizon gizonen bidean?

Munduko kittarra danak  
erreko ba'iitu suak,  
zer esango ete ieuke  
abeslari zintzo danak?

Apurtzea ez da ona,  
ez da zuzentza bidea,  
zergaitik nai erretea...  
zergaitik bestea iltea?

Nor da biziaren jaube.,,  
lotsagabekeria ala  
jakituri ta maitasun  
danaren egi apala?

## ZA? AL TZ E RIK

Zapaltzerik nai ez eta  
or, doa auspoaren putza,  
norbere aiskide ez danak  
artuko dau garrototsa.

Musika au nork ulertzen dau?  
Ongiite uts daia uste daunak,  
noraiño zapatdu nai dauz  
giza eskubide danak?

Erretako lantegian,  
nork bear egin ete lei?  
Su-garrak emongo ete  
bear barria gizonei?

Gorrotoaren azia  
diabru buztan gorria,  
gizadia apurtzen dabii  
kanta kantari iarria.

Txarra kentzca nai dogu;  
egin bear dan iana da,  
txar bigaz ezin konpondu  
bizitzaren agindua.

# GIZONAK

Gizonak ez dabe bardin  
íkusten bizi zustraia;  
nork norbera dan erara  
ta asko bere gaiztakeria.

Biziaren azalpena,  
ezbardiña naiz aurkako,  
norbera goratzea da  
geienetan lar gogoko.

Ortik dator banatzea,  
munduko kaskarkeria,  
jakituriarik eza  
eta maitasun urria.

Eleizak ba-dau bere itza  
arazo aundi onetzaz,  
ítz garbia, jakituriz  
betia ta maitasunaz.

Jaungoikoak emon eban  
irakatsi onen guna,  
gizon í.lkor guztientzat  
egokia izango zana.

## BANATZEA

Banatzea samiña da,  
eriotza bah dakar...  
euskaldun sinisbakuak  
sortu daben bide nabar.

jainkorik ez da bear  
kantu otska erriari...  
Au dok ziri gatgarría,  
ona kentzen gizonari!

Euskaldunen batasuna  
ederra zan lengo baten,  
s<sup>g</sup>izonaren itza eukan  
batak besteai on citen.

Aionaren seme areik  
beste AITON betikoa  
egiz onartuten eben,  
eurentzat argi goikoa.

Ez ziran ez lotsatuten,  
ta bai ostera poztuten,  
argiaren argietan  
laiño baltzak urratuten.

## EUSKALERRIKO

Euskalerriko Eleizak  
min dau biotz barrenean,  
ainbeste saka-banatze  
daiarik semeen artean.

Erri ain sinistuna zan!  
Barruz ainbeste maite eban  
geroko artu-emona  
gure lurraren zarretan.

Egitlea maitatzeko,  
lurra maitatu bear da,  
gizon-kideak onartu,  
txarrik ez egin iñola.

Frlejiñozko zustraiak  
gogor errotuta agertzen  
ziran euskal batzarrean;  
beti, egia maitatzen..

Egiaren zalea zan,  
era betera erria,  
egizko bizia maíte  
euskaldunak. Or egia!

## GIZONARENTZAT

Gizona gizonarentzat  
otso-gose biurtua;  
bere jokabidea da  
ondamu ta gorrotua

Norberekoikerietan  
bizia oiñarriturik,  
iñun ez da maitasunik  
ez eta laguntzaillerik\_

Gizartea otska ari da  
miñetan bizi eziñik,  
berez on-zaiea bait da  
biotzaren barrenetik.

Noiz arte izango ete da  
burruka barrabas ori,  
noiz argituko jakue  
buru illun ori gizonei?

Gizona argiaren biila  
nundik nora ete doa.  
Nun aurkitu nai dau lurrez  
goitik datorren argia?



## MUNDUKO

Munduko endredu ontan  
argi zuria agiri da,  
illuna urratzen goizean  
zeru goi-goitik lurrera.

Illunak ez eban gura  
goi-argia etortarik.  
Laiñodiak bildur ziran  
justuriak ikuturik.

Iilunak bere gaitza dau  
zabarkeriz ondatuta,  
lapurketa, gaiztakeri  
maltzurkeriz baltzituta.

Zeruak itz egin eban,  
Aitaren Semea eguan  
gizonaren irudia  
zala esaten munduan.

Gizonak, Egille dana,  
maite eikean zerupean,  
ortarako gaia eukan  
barruko almen betean,

## MIN

Min artu neban, min emon  
eusten gizonak lurrean,  
egi zaiea zanari  
guzurragaz zapaitzean.

Guzurra, nagusi, ikusi  
eban petralkerietan,  
sinismenaren egia  
bestetuta gizartetan.

Doakabea eritxon  
ikusten ziardunari,  
etzan gizonen bidea,  
ostutea gizonari.

Iltea ez zan egoki,  
gizona ez baita jaube,  
ta zenbat iiten ebezan  
ezeren ezpairik gabe.

Olako indarrak indarrez  
indarkerietan dabiltz,  
artu ezin dana artuta,  
zorakerietan gabiltz.

Baiña gizonak gizona  
zergaitik iraindu leike?  
Gizonak gizona nungo  
eskubideaz il daike?

Arrokeriaren garra,  
itsukeriaren keia,  
bíziki dabil askoren  
bizitza ondatzaillea.

Gizonaren nortasuna,  
izatez da aundi gorena,  
beraren baitan daroa  
deduzko ikutu gurena.

Notiñak ez dau jauberik  
biziaren argietan,  
iñor ez dau nagusirik,  
ez jaunik oin bikoetan.

Askatasundun da berez,  
sorreratik ilteraiño,  
giza-izatearen muiñak  
dei dagi azkeneraiño.

## GIZONAK

Gizonak argi txikiaz,  
argi txikia bai berea,  
epaitzen dau bere erara  
urkoaren jokerea.

On-ez au daroa beragan,  
griñaren txatxarkeria,  
txarraren norkeria,  
nortasun ustelkeria.

Eztana nai dau beretzat,  
iñundik artu gabeko  
gizonen jaubetasuna  
berepean joputzeko.

Giza usteikeri aundia  
iñogaz jaubetutea,  
zapalkeriaren garra  
erraietan izatea.

Noiz suspertu bear ete  
dau aurrerapide zala  
dan batzarreko gizonak,  
ez izateko ondatzille?

Baiña, gizon, nor zara zu,  
zure Egille ain aundia  
zure izatez oroitzeko  
bizi jaube on guztia.

Gizonen al-izatea  
zerutik dator iudira.  
Aingeru berberak baiño  
zerbait txikiago dira.

Ta emen giza-semea,  
bere argi ta biotzez,  
izadi guztia baiño  
ederrago da urre-bitsez?

Baiña Jaube'k gizona ez  
zun bakarrerako sortu,  
aurren aurrenetik gizon  
eta andra agertu ditu.

Gizona bere izakeraz  
gizarterako jaio zan,  
adimen ta borondatez  
laguntzeko egina izan.

## IZADIAREN

Izadiaren gaññera  
eta izadi beretara  
begiratu eban Jaube'k  
beraren asmoetara.

Ederra, ona eritxon  
sortu eban izadia,  
askoz ederrago baiña  
bere antzez gizadia.

Lurra aberats bizi-bidez  
orniturik itzi euskun,  
urre, zidar, arroiio  
billatu ala ba-gendun.

Gizonaren balioa  
guzTietan eder-eder,  
buru biotzetan eukan  
Egille berberari esker.

Ari ta ari ibiliko da  
bizi bidearen bilia;  
nor-geiagokaz sarritan  
bestea zapatdu ta illa.

## ZUZENTASUN

Zuzentasun bizikeran  
Jauna'k sortu zun gizona,  
eder eta uts gabeko  
gauza askoren nausi-jauna.

Izaki bikaiñena zan.  
Or ezpairik ez egoan,  
lurreko jaube bezela  
bizitzan poztu egin zan.

Egilea nagusitzat  
artzea ez eban nai izan.  
Sorlea alborantz itzirik,  
gizon bidetik nai eban.

Gizonak bere elburua  
berak lortu nai bakarrik,  
au zan uts arrigarria  
jaio eta beste barik.

Burua cta biotza  
illun geratu ezkeru,  
gizona ain da ezer-eza,  
onik ez dau eiten gero.

# LEEN

Leen iagun areik, egitan,  
Jainkoa ezautu eben,  
baiña ez eben goraidu;  
grñetara ziran makurtzen.

Bizia euren erara  
euren nausitzaz bakarrik  
eratu gura izan eben,  
Egille —jaubetza barik.

Gizona gero tristea,  
zuzentza barik ebiiian,  
legerik ez eban gura  
gizonen naikerietan.

Ondoren, guztia ari zan  
gatez zuioetan jausten,  
lotsatzen, ingurukoak  
gogorkeriz ondatzen.

Biotz totoa sartu zan  
barru barren ondoraiño,  
gizona gaidu eban  
lezaren baltz muiñeraiño.



## ZUZEN NAI

Gizon zuzen nai kirtenak  
barriera begiratutzean  
beregán ikusten ditu  
ona ta txarra nasteán.

Lege zatarra deritxo  
beregán daukan aierra,  
naiko ez teukean txarra  
egiten jardun bearra.

Edonundik arí jakoz  
zirika gaiztakeriak;  
guzurraren malkarrera  
daroa, bizi, etsaiak.

Arrokerizko jakintzaz  
ez dau ezagutu gura  
gizadiaren Sorlea  
norbere aundikerira.

Gero gizajo txatxarrak  
ez dau gura makurtzerik  
Jaunaren esanetara  
arrokeriak goiturik.

## EZAGUTU

Jainkoa ezautu nai ezik  
trokarte aundienera  
jausten da, itunik, gizona  
iiiunaren erpapera.

Ta ara nun dagon gaixoa  
bere baitan zatiturik,  
zaputzkeri gogorrena,  
miseri baltz biurturik.

Ta bere baitan ez dauka  
besterik burruka baiño,  
barru burruka doako  
gizarte bizitzaraiño.

Gau ta egun, edonun,  
burrukearen goguak  
ez dautsola izten bakean,  
inpernuak dau artuak.

Baiña geiago oraindikan,  
gizonak berenez ona  
danik ezin dabela ein  
dirudi. Galdu alena...

## BAIÑA ALDIA

Baiña aldia betekeran,  
Kristo Jainkoa agertu zan;  
argi bera, bere iza tez  
zana, gure giz-antzetan.

Zertan dator? Zer gura dau?  
Gizonen azkatasuna.  
Txar ta diabruagandik  
jareiten gizatasuna.

Gizona indartzera dator.  
Gogoz barru-barrenetik  
ienengo barriztutera,  
ez baitau nai ondatzerik.

Kateiak kenduko dautsoz  
gizon itxura emonik,  
itzez ta egiteen bidez  
bide onak argiturik.

Munduko agintzailia dan  
txarkerizko buruari...  
BIZIA iiten etorri zan  
on eñez gizadiari.

## OSO BAT

Gizona oso bat danez  
gorputz ta gogo ditu,  
izaki bikaiña eta  
guztitan ederren dogu.

Basazko dala agiri da,  
iur guztiaren gurina.  
Lurrak giz-basatik artu  
dau goratasun zuzena.

Lur biribilla, apala da,  
ixilik dago berean.  
Gorrotorik ez guretzat.  
Biraka, beti, aldean.

Gorputza ez da aspergarri,  
ez eta ere irrigarri;  
betiko bizitzarako  
agertu izan da arrigarri.

Goragarria da, beti,  
bizi eta illun artean  
betiko argia itxoten  
atsedeneko aidian.

## GIZONAK

Gizonak ba-dau lera zar,  
jaiotzatik jatorkona,  
norbaiten bizi guztia  
azpiratu nai leukena.

Ta zer, lera origaitik?  
Berez daroa kemena,  
eginbearra, gogoia,  
gurtzeko Egille dana.

Munduko zer oro baiño  
aundiago da bakarrík,  
bere uste bakan orretan  
ez dauka iñundik okerrik.

Bere barruz, maitasunez,  
jakituriz, azke izatez,  
ez dau beste antzekorik  
betiko onaren egitez.

Barrura begirakeran,  
Egilea ikusten dago  
ta bere zona ere,  
ortxe, eratzen dau nausígo.

## ARGIA

Argia dauko gizonak;  
andik, betiko Argitik,  
artutako argi izpia  
da gizonengan bizirik.

Argiz jantzitako Seme,  
origaitik da guztíak  
baiño ederrago ere,  
diñoskunez siñistek.

Aberearena ba-dau...  
Ibaiarena ere bai...  
Mendiko zuga taren bizia  
lerden dagersku, ta anai.

Arria gogorkeriaz,  
basca basakeriaz,  
zer guztien itxurea  
beragaz bat egiñagaz.

Burdin ta borontze baiño  
gogorrago jat agertzen;  
argia itsutu bearrez,  
zelan dan gizona lerden.

## BAINA

Baiña gizon jakintsuak  
Jaungoikoagandik argiz  
ta bere ekiñaren lanez  
arrigarrizkoak dagiz.

Munduko lurra gaur ez da  
asikeran zan bezela,  
otea, larra, sasia,  
arri otza eta arbela.

Gizona ondo orniduta  
agertu zan asieran,  
burua jakituriaz,  
maite-sua biotzetan.

Agindu santua artu zun  
bere Egilleagandik,  
zulo tontorrak bardindu  
guztia orleiz jantzirik.

Denpora aldi guztietan  
adimen eta biotzez  
gizonak landu dau lurra  
beraren eginbearrez.

## GAURKO

Gaurko gizonak egitan  
zart daragitso lurrari,  
antziñako gauza zarren  
billaketan ari ta ari.

Lur barruetako ondasun  
eta indarririk itzalenak,  
lur azaleraño dakaz  
buruz egiñik lerrenak.

Ipar-Ameriketako  
gizon jakintsu aundiak  
lurreko egitetan ez  
ebezan lotu begiak.

Jakituriz konturatu  
ziran, jakituriaren  
Jakituria ba-zala,  
gizonak asmau ez arren.

Ta urriñean, an goietan,  
illargiaren autsetan  
Jainkoa goratu eben  
betiko maite garretan.



## GIZONAREN

Gizonaren adimena  
lurreko gertarietan  
bakarrik ez da goratzen,  
arago doa barrundetan.

Gauz arein egikeretan,  
gertakarien sorkeran,  
adimen Jainkotiaren  
oiñatza ikusi dabe an.

Gizon adimen argitsuak,  
guk ikutu ezindako  
egi izpiak ikusi ta  
artuteko indarra dauko.

Izate adimenduna  
jakituri barrietan  
argitu bear dau eta  
osotu bere lanetan.

Giza-izate maitezkoa  
poztuten da argietan,  
beti maitatzen, maitatzen,  
egiaren lei-gandutan.

# ALDI

Aldi ontako gizonen  
zuurtasuna bikain dator  
biziei ona egiten,  
danontzat itxaropenkor.

Jakituri barri onek  
oraingo egun onetan,  
zeregin aundia dauka  
gizonen bizi bidetan.

Aurrerapidea ez da  
bakarrik bizitz zoria,  
aurrercapideak ona  
egin bear dau ugaria.

Gizartearen bizia  
argitu, bigundu, poztu,  
gizonen senean josi,  
giro egokiak sortu.

Gizon lapurrak kenduta  
gizon zuur ongilleak  
biarko egunak deskaz  
ain bear-bearrekoak.

## GIZON ZUURRA

Gizon zuurra, berez, bere  
barnera aditzen jat ari.  
Gizonaren legea da:  
jo norbere ezautzeari.

An, barruaren barnean,  
lege bat daroa bizi.  
Gizonak sortua ez da,  
baiña nabaitzen gogorki.

Eskabide aundiak dauz;  
beraren indarrezko oiuz  
gizonari dei dagitso,  
«esana egik» eskatuz.

Maitatzea, on eitea,  
eskatzen ditu biziki;  
txarkeria, alderantziz,  
ukatuten dau gogorki.

Barru daroa legea;  
onen arauz epaituko.  
Gizonaren duintasuna  
esangintzan aurkituko.

## BARRUKO

Barru-deia dantzunaren  
bideak onak izanez,  
gogapea da irakasle  
ziur, bere mintzo leunez.

Gogapearen zuzentza  
aundia izaten danean,  
gizontasuna indartsua  
izango da gizartean.

Onaren indarrak argi  
egingo dau gizonetan,  
gizartea obeago  
biurtuko dan ordutan.

Naikeriak ilgo dira,  
maitzurkeriak baztertu,  
guzurkeria lotsatu,  
nausikeriak txit austu.

Gogape zuzenak, olan,  
bota nai dau txarkeria,  
lora zurien antzera  
agertu dedin bizia.

# BARRU

Barruko lege sendoak  
ortzak agertuko dautsaz  
gizon lotsagabeari  
oífiastarrien indarraz.

Gogapea dau gizonak  
bere izate guztiaren  
barreneko muin saildua  
egi guztiak zainduten.

Berez da muin ixilla  
ta ixil guztien kabia,  
erantzupenez betia  
kontuen eskatzaillia.

Erantzupenak legea  
agertuten dau sendoki;  
zer egin bear dan dager,  
ta txarra izteko zuzenki.

Barruko zarata zur au  
txarrarí arrika da ari,  
ta ona adierazoten  
txarrez doan gizonari.

## AZKATASUNAREN GAIA


Azkatasunaren gaia,  
gogapearen abotsa  
da gizonaren barnean  
egiaren zaratotsa.

Azkatasunak goratzen  
dau gizona, zuzentasun  
bidetik doan orduan;  
au gizonaren ondasun.

Azkatasunak beratzen  
dau gizonaren tajua,  
ondo ez dabiilenean  
ludi ontan gixajua.

Ustelkerietarantza  
joaten da sarri itsurik,  
azkatasunaren itza  
bere aldezko arturik.

«Azkatu, diño, azkatun,  
eta itzez, baita egitez,  
besteak zapattzen ditu  
berekeriak egiñez.



## AURKIBIDEA

	Pág.
Itzaurrea ... ..	5
Egia naz deika ... ..	12
Ama-lur ... ..	13
Barrua ... r. r.r	14
Biribil aidean ... ..	15
Gorrotorik ... ..	16
Lurra ... ..	17
Ez da kezkatu ... .. r. r	18
Ezin ... ..	19
Ama ... ..	20
Errukia ... .. r. r.	21
Lurra naz ... ..	22
^Saite ziranak ... ..	23
Natorkizu ... .. r.	24
Egiak ... ..	25
Geroz ... ..	20
Vlaitalari ... ..	27
Ez dot nai ... ..	28
Zauriak ... ..	29
liiraurik ... ..	30
Gizonak ... ..	31
Ixil-ixillik ... ..	32
Neguan ... ..	33
Bakez ... ..	34
Bideak ... ..	35
Laifiu ... ..	36
Barrura ..r ..r	37
Deadu'ra ... ..	38
Lur ... ..	39
Ume zirtzil ... ..	40
Lengoak ... ..	41
Bizi nai ... ..	42
'1'a Jarraian ... ..	43
Irudiki ... ..	94
Edurrak ... ..	95
Negu baltzak ... ..	46
Alde ... ..	97
Nire ... ..	98
lñoZ ... ..	99
Len r. ... ..	60
Nlin ... ..	51
Nire ... ..	52
Gizon ... ..	53
Egiak ... .. r.	54
Jakituriak ... ..	55
Izadirantza ... ..	56
Gizonak ... .. r	57
Biotza ... ..	58
Gizon osoa ... ..	59



«°o` _____ ^^uu^^ _____	60 "m
^"so _____ ou^* _____	m 04
mu^" ^o _____ u" _____	65 66 67
n"^^u _____ n^" ^ _____	m m m
m=o-- _____ ^o="^r^^ _____	o 72 o
mr^ _____ r _____ o,^"m^ _____ n^"^^ _____ ^"~u= _____	77 75 76 n
z^^ _____	m 79 80 81
^"m^ _____ ^" ^ _____ o"^^uu _____ ^,u" ^ _____ oo^^ _____	m 84 m 86 s
no`u"^^u^^" _____	88 m e m
a^w^^ _____ r"u _____ mm _____ a" ^ o w _____ u^o _____ ^^" ^ = ^ _____	m 93 94 s m m
a^^^ _____ a"^^" _____	»« o mo ou mx uo u^ uo
Gure m m ... .. r. .f ... .. f ... .. m"m _____ ^^" ^u _____	m ou uw
o"m _____ u^"w" _____	, u 113

Mendiak	111
Diraut	115
Zer	110
Lur	117
Gizona	118
Egizko	119
Gaur	120
Mendi	121
Etxe	122
Leiock z	123
Bide	124
Menditik	125
Munduko	126
Ori cla	127
Gaiñik gain	128
Jokemgaz	129
C,oi aldean	130
Goiko	131
Munduan	132
Eremu	133
Aita	139
Aurrerapideen	135
Izadi	136
Erri	137
Saltoka	1311
Teknika	139
Era	140
Biderik	141
Euskadunenak	147
Antsiz	143
An	141
Norberekeria	145
Munduko	146
Astinketa	147
Olako	148
Ta ainbeste	149
Iskanbilla	150
Rakoif zu	151
Pentsebideak	152
Gaur	153
Dirudunak	154
Ondasun	155
Erri	156
Aldi	157
Gizartea	158
Indardunen	159
Burruka	160
Gi^ eginbearrak	101
Gizanaren	102
Mundu	103
Egoera	164
Lurrak	165
Na<.teak	166
Bizitz	167

	Pág.
Zenbait lur gaikcriari	130
Gaurko	1119
Ainbeste	170
Gizona	171
Gizon	172
Gizonak	173
Il oostean zer?	174
Edozein	175
Nor zara zu?	176
Ta, zu?	177
kit arra	178
An dolz au	170
Ni	100
Zuzentasun	181
Etti ordez	182
Nire	133
Ai	101
Euskaldun	185
Be	186
.zaio	1871
Zuzentasuna	108
Zapaitzerik	131,
Gizonak	190
Bana tzea	191
Euskal crrik9	192
Gizonarentzat	103
Munduko	194
Min	195
Bairta	196
Gizonak	197
Baiña	198
Izadiaren	199
Zurent asun	200
roen	201
Zuzen nai	202
Ezagutu	203
Baina aldia	204
oso bat	205
Gizonak	206
Aria	207
Baiña	209
Gaurko	209
Gizonaren	210
aldi	211
Gizon zunrra	212
Barruko	213
Barru	214
nz alastgaron gaifa	215